

hh
hik hasi

183



ANIZTASUNA IKASTETXEETAN • LOREA AGIRRE •

**0-3 ZIKLOKO HEZITZAILEEN FORMAZIOA • BERRIKUNTZA: OINARRIAK
SENDOTUZ • MASKULINITATEAZ GOGOETA BAT • ROBER GUTIERREZ**

ALBUM ILUSTRATUAK eta KOMIKIAK




IPUINAK



JOLASTEKO LIBURUAK



EZAGUTZA LIBURUAK



aurkibidea



10
gaia

ANIZTASUNA

Aniztasunaren konplexutasuna aintzat harturik, euskal eskoletan etorkinen egoera zein den adierazteko datuak eman eta erradiografia egin dugu gai nagusian, zentroek eskura dituzten hainbat baliabideren berri ematen da artikulu honetan eta ikasgeletako errealitatea ezagutzeko baliagarri izan daitezkeen hainbat klabe eskaintzen.



18
elkarrizketa

LOREA AGIRRE

Euskararen eta euskal kulturaren biziberritzean dihardu, Lorea Agirrek. Kazetaria eta antropologoa da eta Huheziko Sorguneak ikerguneko ikerlaria. Euskararentzat arnas-guneak pentsatzen eta sortzen lan egiten du, besteak beste, Oarsoirria proiektuaren barruan umeen aisialdi parte-hartzailea, euskalduna eta hezitzailea bultzatzen duen ekimenean dihardu.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ANIZTASUNA: arrakastarako giltza zentroak berak dauka

18 elkarrizketa

LOREA AGIRRE Kazetaria

24 0-3 zikloko hezitzaileen formazioa

30 esperientziak

BERRIKUNTZA: Oinarriak sendotuz

33 ekarpenak

AMELIA BARQUIN: Baina mutilek pixa eserita egin dezakete? Maskulinitateaz gogoeta bat.

36 galdeidazue

Zer baliabide eskaintzen dituzte IKTek ikasleek elkarrekin lan egin dezaten? **NERE AMENABAR**

40 hik hasi-ren proposamena

BAKARRIK ETA LIBRE Imanol Urbietaren omenezko diskoa

42 Atzeko atetik **ROBER GUTIERREZ**

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitu eta Arantzazu Muñoa. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZ A.S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2013-11-14). Kopurua: 3.800 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan itazaroa aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Eman diezaiogun

hezkuntzari garrantzia



Harpide zaitetz! Eta indartu ezazu hezkuntza komunitatea

-50 euro urtean jarrita 10 hik hasi aldizkari, ale monografikoak eta Euskal Herriko baliabide pedagogikoen gida. Horrez gain, prezio bereziak Udako Topaketetan, jardunaldietan eta argitararaten ditugun gainontzeko materialetan.

-20 euro urtean ordainduta 4 Hazi Hezi aldizkari.

Bi aldizkariak hartuta, 65 euro urtean.



www.hikhasi.com

943 371 408

editoriala abendua

Nor gara 'gu'?



Aniztasuna kudeatzen hasteko, non kokatzen garen erabakitzea garrantzitsu deritzogu; akaso “gu” eta “beraiek” bereizi eta horien artean zubiak eraikitzeke lana hartu baino, ez ote da hobe denok “gu” izatea?

Aniztasuna benetan gai konplexua da, batez ere nola kudeatu ez dakigunean. Baina aniztasuna errealitatea da, gaur egungo hezkuntza-sistemak —ikastetxe guztiek, irakasle bakoitzak— kalitatean oinarritu nahi badu bizkarra eman ezin dion errealitate bat.

Aniztasunaren aurrean kokatzeko hainbat modu daude. Bizkarra ematea izan daiteke bat, eskolaren benetako funtzioan sinesten duen edonork onartu ezin duen modua, ordea. Beste bat zubiak eraiki nahi izatea izan liteke, “gu” eta “beraiek” “elkartzeko” zubiak eraikitzea. Baina, nor da “gu”? Eta nor “beraiek”? Gu-tarren artean ez al dago aniztasunik? Akaso ez al gara gu denok anitzak? Jatorriz, ideologiaz, er-

lijioz, hizkuntzaz, kulturaz, baina baita zaletasunez, gaitasunez, adinez, ohiturez, izaeraz... Akaso “gu” eta “beraiek” bereizi eta horien artean zubiak eraikitzeke lana hartu baino, ez ote da hobe denok “gu” izatea, bakoitza bere ezaugarriekin, gaitasunekin, ahalmenekin, nahiekin...? Aniztasuna kudeatzen hasteko, non kokatzen garen erabakitzea garrantzitsu deritzogu, eta hitzez soilik ez, benetan inklusiboak izan nahi badugu, ezin dugu “gu” eta “beraiek” dikotomiatik abiatu.

Horrek ez du esan nahi aniztasunaren konplexutasuna aitortzen ez dugunik, inondik ere. Ikaragarria da ikasle bat, bi, hiru... ikasturte erdian atzeritik etortzeak sortzen dituen zailtasunak. Baina “aniztasuna abe-

rasgarria da” gisako leloetan gelditzeak ere ez du asko laguntzen. Baliabideak, formazioa, pertsonala, pertsonala, formazioa eta baliabideak behar dituzte ikastetxeek egoera horiek ondo kudeatzeko, ikasle bakoitzak eman dezakeen onena eman ahal izateko; eta ez soilik programak.

Aniztasunak hezkuntza-sistemaren oinarri asko kolokan jarri ditu. Ikastetxeak prestatuak al daude, gela bakoitzean duten errealitateari erantzuteko? Ala ikaslearen —etorkinaren, itsuaren, gurgildun aulkian doanaren— bizkar uzten du? Irakasleek —irakasle bakoitzak— bal al dute aski formazio beren geltan —bakoitzaren gelan— duten errealitateari erantzuteko?

“Gaur egun, haurren bitartez sartu da euskara hainbat etxetan. Ez da gurasoengandik haurrengana pasatu. Umeek sartu dute”

Paula Casares

hizpide



Lanbide Heziketa berrikuntzara bideratzen ari da Eusko Jaurlaritza

Europako Batasunak Jaurlaritzaren estrategia txalotu du hezkuntza sisteman zein lan merkatuan daudenak trebatzeaz gain, berrikuntza aplikatuan emandako pausoengatik. Berrikuntzaren bidea estrategikotzat jo du Eusko Jaurlaritzak, enpresa txiki eta ertainei begira, batik bat. Izan ere, berrikuntza lantzen duen zentro batekin lan egitea oso garestia izan daiteke enpresa txiki batentzat, beraz, berrikuntza aplikatzen dakiten langileak behar dituzte enpresek eta Lanbide Heziketak horretako prestatzake, Jaurlaritzaren esanetan. Gakoa, indartzen ari diren sektoreak sustatzea eta berriak sortzea dela dio. Uneotan okupazio tasa txarra izan arren (% 65; beste garai batzuetan % 85ekoa izan da), sektore batzuetan aurki langileak faltako direla aurreikusten baitu.

Horrexegatik, Lanbide Heziketan eta enpresetan aldi berean trebatzearen alde egiten du Jaurlaritzak.

Nafarroako D ereduko 1.600 irakasle ikertu ditu poliziak ETArekin zerikusia izan dezaketelakoan

Guardia Zibilak D ereduan ari diren Nafarroako 1.652 maisu-maistra zelatatu ditu ETArekin zerikusia dutela frogatzeko asmoz eta horietatik 441 “etazalea” dela ondorioztatu du. D ereduko 28 eskolako irakasleak ikertu dituzte, ez dute zehaztu zein, soilik Nafarroa iparraldekoak direla. Espainiako Gobernuak bilera bat egin du jada UPNrekin “zernaurre hartu erabakitzeko”, baina ez dute neurri horien berri eman.

Guardia Zibilak zerrendak osatu ditu irakasleen datuekin. Haren arabera, gaur egun Nafarroako 155 ikas-tetxetan ematen dute euskara hutsezko eredu. Haietako 28 aztertu dituzte. Zorrotza da egindako jarraipena: zein sindikatutako kide diren, legez kanpo utzitako zerrendetan ageri ote diren, senideren bat preso ote duten, kartzelara bisitan joaten ote diren... “Etazaletzat” jo dituzte horietakoren bat betetzen duten maisu-maistra denak. Lautik bat.



Seaska Unescorekin eskuz esku ariko da etorkizunean

Seaskak salatu du Frantziak nazioarteko itunak sinatu bai baina ez dituela betetzen, gutxiengo existentzia ukatzen duelako. Izan ere, nazioarteko itunek aitortzen dute haurrek eskubidea dutela haien ama hizkuntzan ikasteko. Alta, Frantziak ez du onartzen gutxiengorik, eta, ondorioz, euskaraz, katalanez, korsikeraz edo alsazieraz ikasi nahi duten haurren eskubideak zangopilatzen ditu. Jokabide hori onartezina dela dio Seaskak eta izenpetutako itunak –nola hezkuntza eskubideen arloan, hala hizkuntza gutxituenean sinatuak– indarrean jartzeko eskatzen dio Gobernuari.

Seaskak Unescorekin lan sakona garatu nahi du egiazko *lobby* edo indar metaketa osatuz Frantziako Gobernuaren hizkuntza eskubideen urraketan aurrean eraginkor izanaz. Ikuspegiak trukatu eta sarea osatu dute dagoeneko. Haurren eskubideak urratzen direnez, Frantziako Gobernuaren aurkako helegitea jartzeko asmoa du Seaskak eta hainbat mobilizaziotan parte hartzeko deia egin du. Batera mugimenduak manifestazioa egingen du azaroaren 30ean Maulen eta euskara izanen da bertako lau aldarrietako bat. Abenduaren 28rako berriz, Seaskak berak manifestaziorako deialdia eginga du.

izan da

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskoletan genero indarkeria identifikatzeko sistema landuko dute

EAEko eskoletan emakumeen aurkako indarkeria molde desberdinek antzemateko adierazle sistema bat landuko du Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Sailak eta Emakundek sustatutako hezkidetzaren planaren helburu nagusietako bat genero bortizkeriari aurre hartzea dela kontuan izanik, irakasleei detekzioarako tresnak ematea izango da proiektuaren xedea. Hiru urteko iraupena izango du planak eta ikasturte honetan jada ari dira ekintzetako batzuk abian jartzen.

Adierazle sistemarekin, batetik, indarkeriari buruzko gida bat landuko dute, mota bakoitza bereizi ahal

izateko: neskatoen kontrako indarkeria sexista, berdinen arteko eskola jazarpena edo *bullying*-a, amen aurkako genero indarkeria, elbarritasunari lotutako sexu abusuak, genitalen mozketak... Bertan txertatuko dituzte adierazleak, ikastetxeetako langileak horietara adi egon daitezten. Bestetik, irakasleei eta zentroko arduradunei nola jardun adieraziko dien protokolo bat egingo dute, eta kasu batzuetan udaletako berdintasun arloen neurriekin koordinatuko dituzte.

Edonola ere, aurreko ekainean iragarritako planaren muinean ez da aldaketa handirik izan. Arduradunen

esanetan, balio erantsia da lana sistematizatzeko aukera emango duela, hezkuntza komunitate osoak parte hartuz.

Aurten hasiko dira trebakuntza eskola batzuetara helarazten; 50 zentro publikorentzako deialdia zabaldua du Eusko Jaurlaritzak. Aukeraturako ikastetxeetako hezkidetzaren arduradunak hezkidetzaren arloko formakuntza jasoko du. Deialdi horrek jarraipena izango du datorren urteetan: kurtso bakoitzean ehun eskolari eskainiko zaie, eta tartean sartuko dira itunpeko ikastetxeak ere. Horrez gain, hezkidetzari eta genero indarkeriari buruzko informazioa eta trebakuntza eskaintzen hasiko dira, bai zentro guztietako irakasleentzat, bai ikasleen senideentzat.

Poliziaren biktimak ere eskoletarako bake planean txertatuko ditu Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak aurrera egingo du ikastetxeetan biktimen lekukotasuna jasotzeko planean. Aurreko gobernuak abiatutako proiektua ez du atzera botako, baina ikuspegi zabala-gobatekin helduko dio. Hala, ETAren biktimak ez ezik, poliziaren biktimak ere joango dira eskoletara lekukotasuna ematera. Horrez gain, hezkuntzaren alorreko hainbat eragilerekin bilerak egiten hasiak dira haien ekarpenak jasotzeko.

Gaia hezkuntzaren eremura era-

man nahi du Jaurlaritzak. Proposamena hezkuntzaren gakoetatik uler-tu behar dela dio, ez politikoetatik.

Eragileek eta Jaurlaritzak jarrita dauzkate abiapuntuak: *Gizalegez* ituna sinatu zuten urriaren 1ean; gatazka zerk eragiten duen zehaztu zuten hitzarmen horretan eta horiei hezkuntzatik nola aurre egin adierazi zuten –sindikatu abertzaleak itun hartatik kanpo geratu ziren–. Testu oso orokorra sinatu zuten, eta bidea zehazten hasi dira orain.

Nafarroan ez dira diruz lagunduko sexuka bereizten duten eskolak

Nafarroan foru arau bat dago indarrean ikasleak sexuka bereizten dituzten ikastetxeen itunpetzea saihesteko, eta beraz, Nafarroako Gobernuak legea beteko du eta ez ditu diruz lagunduko ikastetxe horiek. Espainiako Senatuak sexuka bereizten duten eskolak ituntzeko akordioa egin duen arren, Nafarroako Parlamentuak adierazi du akordio horren kontra dagoela, UPN eta PPNren kontrako botoekin.

hizpide



Crowdfunding bidez finantziazioa lortuta, 'Keinuka mugaz gaindi' pelikula egingo dute

Kurkuluxetan elkartek Kubako eta Euskal Herriko 20 eskolarekin batera, giza balioei buruzko *Keinuka mugaz gaindi* filma egiteko proiektua jarri du abian. 5.000 ikasle inguruk hartuko dute parte bi herrien arteko harremana eta laguntasuna islatzea helburu duen pelikulan. Finantziazioa lortzeko urriaren 16tik aurrera crowdfunding bidezko kanpaina jarri zuten martxan. Helburua, gutxienera 8.000 euro lortzea.

Pelikulako protagonistak herrialde bateko zein besteko haurrak izango dira. Bakoitzak bere ikuspegitik eta kulturatik jadungo du, baina mugez gaindik zenbait balio guztiak komunean dituztela kontuan izanik. Laguntasuna, elkarlana edota kooperazioaren antzeko balioak gutxiesten dituen mundua justu eta solidarioago bihurtzen lagundu nahi dute egitasmoaren bidez.

Seaskaren Lagunak elkarteak sortuko da ikastolak ekonomikoki laguntzeko

Faloux legea oinarri hartuta Ipar Euskal Herriko ikastolei finantziazio publikoa ukatu zieten urte hasieran. Horri buelta eman nahian sortu nahi dute Seaskaren Lagunak taldea, ikastolak diruz laguntzeko. Taldeak bi xede nagusi izan nahi ditu: batetik, Seaskako ikastolentzako diru-iturri berriak aurkitzea, eta bestetik, ikasle ohien arteko harremanak sakontzea. Azken horiek sare sozialetan ia 1.000 laguneko taldea osatu dute Seaskako Ikasle Ohiak orrialdean, horien elkarlana sustatzea da gakoa.

'Gu, jatorri anitz, herri bat' estreinatu da



Juanba Berasategik zuzendutako *Gu, jatorri anitz, herri bat* izeneko dokumentala estreinatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziazioarekin egina aniztasunari buruzko eztabaida sustatzeko helburuarekin. 30 minutu inguru irauten duen ikusentzunezko honetan hainbat jatorritako herritarren testigantzak, iritziak eta elkarrizketak jasotzen dira. Hainbat kezka eta hausnarketa planteatzen dira bertan, ez zalantza horiei erantzuna emateko, baizik eta eztabaida irekitzeko eta gizarteko aniztasuna ahalik eta egokien kudeatu ahal izateko bideak zabaltzen hasteko.

Urrian aurkeztu zen dokumentala Donostiako Antzoki Zaharrean. Gipuzkoako Foru Aldndiaren nahia da datozen aste eta hilabeteetan ikusentzunezkoa lurraldeko hainbat herritara eramatea eta bideoa erakutsi ostean, aniztasunaren inguruko mahai-inguruak, eztabaidak edota solasaldiak egitea. Izan ere, erakundearen esanetan, dokumentala baino gehiagoko hausnarketarako eta lanerako erreminta baita bideoa.

izango da

'Herri hezitzailea, eskola herritarra' monografikoa eta '69 abesti jolasteko' CD berrargitaratua prest dira



Joan den maiatzean *Herri hezitzailea, eskola herritarra* izeneko jardunaldiak egin ziren Donostian Francesco Tonucci pedagogo italiarra eta *Haurren hiria* egitasmoaren sortzailea bertan zela. Kanpoko ekarpenaren berri jasotzeaz gain, Euskal Herrian bertako hainbat esperientziaren berri ere eman zen bertan, besteak beste, Ordiziakoa, Oarsoaldeako Irrien Lagunena, Txatxilipurdi Elkar-tearen "Berramesten"-i buruzkoa, Antzuolako herri eskolakoa, Leioako Herrigunea proiektuaren ingurukoa, Gipuzkoako Eskola Txikiena edota Eskolako Agenda 21ena.

Udaberriko jardunaldi hartan landutakoa izen bereko monografikoan bildu du orain Hik Hasi-k eta kalean da da goeneko.



Horrez gain, *69 abesti jolasteko* CDa berrargitaratu du Hik Hasi-k. Bertan, 4-12 urte bitarteko haurrentzako 69 kata-jolas biltzen dira. Abestiak, jolasen arabera sailkatuta daude, eta CDarekin batera doan liburuxkan, abesti bakoitzaren hitzak eta nola jolasten den azaltzeko testuak ageri dira, hala haurrek zein helduek euskaraz jolasteko aukera izan dezaten. Etxean, eskolan edota aisialdian haurrekin batera abesteko eta jolasteko kantak dira, baina hizkuntz normalizazioaren arloan diharduen edonorentzat ere egokiak izan daitezke.

Monografikoa nahiz CDa Hik Hasi-k Durangoko Azokan jarriko duen stand-ean eskuratu ahalko dira. Harpidedunek etxean jasoko dute monografikoa. Horrez gain, Hik Hasi-ren webgunean ere biak eskura daitezke: 15 euroan bakoitza; harpidedunentzat berriz, 10 euroan. Eskolek ere, beharapenarekin, hau da, 10 euroan eskura dezakete material hori.

Francesco Tonucci eskola txikiekin

Gipuzkoako Eskola Txikietako irakasleak 2013ko urtarrilaren 27an eta 28an, astelehen eta astearte arratsalde, Francesco Tonucci pedagogo italiarrarekin elkartuko dira, Gipuzkoako Eskola Txikien egoeratik abiatuta prestakuntza saioa jasotzeko. Hainbat gai landuko dituzte, hala nola, heziketarako umeak duen eskubidea, jolasteko umeak duen eskubidea eta eskola konpentsatzailea. Alor horiek jorrazteko, baina, eskola txikien errealitatean oinarrituko dira: talde txikietan egiten da lan, adin ezberdinetako umeak elkarrekin daude, eskolak herrian txertatuta daude, ikuspegi konstruktibistan oinarritzen dira, etab. Saioa eskola txikietako irakasleei zuzendua izango da, nahiz eta horiekin aforoa betetzen ez bada, beste eskoletako irakasleentzat ere ireki dezaketen.

GAIA

Aniztasunaren kudeaketa

*Arrakastarako giltza
zentroak berak dauka*





Etorkinei buruzko eskolako datuak eta egoeraren erradiografia

Gero eta anitzagoa da errealitatea Euskal Herriko ikastetxeetan eta aniztasun hori egoki kudeatzea da gaur egungo hezkuntza-sistemak duen erronka nagusienetako bat. Artikulu honetan ageri diren datuei erreparatuz gero antzeman daitezkeen moduan, estatistika asko egin ohi dira gaiaren inguruan, baina etorkinek Euskal Herriko hezkuntza-sisteman aurrera egiteko autoktonoek baino zailtasun gehiago badituzte, datuak emateaz haratago, horren arrazoiak bilatzea izango da gakoa. Horrexegatik, euskal eskoletan etorkinen egoera zein den adierazteko datuak eman eta erradiografia egin ostean, zentroek eskura dituzten zenbait baliabideren berri ematen da artikulu honetan eta ikasgeletako errealitatea ezagutzeko baliagarri izan daitezkeen hainbat klabe eskaintzen dira.

G

Aniztasuna eguneroko bizitzaren parte da, eta ondorioz, baita ikastetxeetako errealitatearen parte ere. Euskal Herrian era askotako jendea bizi da eta guztien arteko elkarbizitza egokia izan dadin aniztasuna taxuz kudeatzea komeni da, nola herrietan hala eskoletan.

Familiaren, jatorriaren, ideien, bizipenen... arabera, ikasle bakoitza al-bokoarengandik ezberdina denez, ikasgeletan aspalditik daude ohituta aniztasuna lantzen. Azken urteetan, ordea, hainbat etnia eta kulturatako ikasleak aregotu diren heinean, aniztasuna ulertzeko modua zabaldu egin da. Gaur egun ohikoa da ikasgela batean mundu osoko hamar herrialde ezberdinetako ikasleak izatea, horrek dakarren konplexutasun guztia-rekin. Datuei erreparatzea nahikoa da gizarteko nahiz eskoletako errealitatea gero eta anitzagoa dela konturatzeko, nahiz eta Euskal Herriari dagozkion datuak lortzea –nola biztanleriari buruzkoa hala ikasleen ingurukoak– oso konplexua den.

Etorkin, inmigrante edota atzerriar kontzeptuak berak ere ertz asko ditu. Berez, atzerrian jaioei egiten die erreferentzia, baina herri, auzo edota gela berean umetan Euskal Herrira etorri eta hemen urteak daramatzana nahiz duela hilabete gutxi etorritakoa batera egon litezke. Eta atzerria bera aipatzen denean ere, zer adierazi nahi da? Euskal Herriaz kanpokoak? Espainiaz eta Frantziatz kanpokoak? Europaz kanpokoak? Era berean, etorkin hitzak badirudi multzo zehatz bati egiten diola erreferentzia, baina etorkinak era askotakoak izan daitezke, bertakoak ere elkarrengandik erabat diferenteak izan daitezkeen moduan. Zerikusi gutxi izango dute senegaldar edota txinatar batek, baina agian ez

dute zerikusi handirik izango Bilbo-ko ezker aldean jaiotako ikasleak edota Goierriko herri txiki batekoak ere. Ama hizkuntzaren, familia motaren, ohituren, maila sozioekonomikoaren edota ingurunearen arabera guztiz diferenteak izan daitezke. Ildo berari jarraiki, jatorri atzerriarreko haurra berez ez da etorkina, baina ikastetxeetan bertakotzat jotzen ote da? Noiz hasten da etorkin izaten? Eta noiz uzten zaio etorkin izateari?

Euskal Herria ikerketa gune hartuta estatistikak egiten dituen erakunde bakarra Gaindegia da, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia. 2013ari dagozkion datuak oinarri hartuta, 2014ko urte hasieran argitaratuko dute biztanleriaren azterketa eguneratua. Oraindik eskuartean datu zehatzik izan ez arren, Gaindegia Hek Hasi-ri aurreratu dio, biztanle guztien artean Euskal Herriaz kanpo jaiotako kopurua % 25etik gorakoa izango dela. Kanpoan jaiotako (guraso biak edo guraso etarik bat) eta euren seme-alabak batuz gero berriz, Euskal Herriko biztanleriaren % 50etik gora osatuko dute. Herrialde Katalanetako 2012ko urtarreko datuak are altuagoak dira: biztanleriaren % 36 Herrialde Katalanetatik kanpo jaiotako dira. Horiei gurasoak kanpoan jaiotakoak dituztenak gehituz gero berriz, biztanleriaren % 63,4 osatzen dute.

Ikuspegiak immigrazioko behatokiaren arabera, 2011n Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 7,7 etorkinak ziren. Gaindegiko datuekin alderatuta 18 puntu baino gehiagoko alde dagoela ikus dezakegu. Izan ere, Gaindegia arabera, Espainian eta Frantziatz jaiotakoak, baina Euskal Herrian bizi direnak ere etorkinak dira. Ikuspegiaren arabera, berriz, Espainiaz kanpo jaiotakoak, eta Hego Euskal

Aniztasunaren kudeaketa

Herrian bizi direnak.

Ikuspegiaren datuei erreparatuz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 2003an 49.231 lagun ziren Espainiaz kanpo jaioak, 2013an 148.165, hots, hiru aldiz gehiago. 2012tik 2013ra, ordea, behera egin du kopuruak: 3.729 pertsona gutxiago. Azken urtean beraz, lehen aldiz immigrazioaren hazkundera negatiboa izan da eta datuei jarraiki, immigrazioak goia jo duela esan daiteke. Antzekoa gertatzen da Nafarroan ere. Estatistika Institutuaren arabera, 2013ko urtarrilean Nafarroan orotara 643.864 biztanle zeuden, horietatik 35.806 atzerritarrak, hau da, biztanleen % 5,6. Azken urtean, ordea, Nafarroan ere etorkinen kopuruak behera egin du. Adibidez, Iruñea hartuz gero, ikusten da 2013an % 11,3 jaitsi dela etorkinen kopurua aurreko urtearekin alderatuz.

Iparraldeko datu zehatzik ez dago: batetik, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako kopururik ez delako jasotzen bere horretan; eta bestetik, iparraldean Hego Euskal Herriko jende ugari bizi delako eta, biztanlearen datu estatalak biltzerakoan kontuan hartzen diren irizpideen arabera, haiek ere atzerritarrak direlako.

Gizartean bezala, immigranteen hazkundera azkarra izan da Hego Euskal Herriko hezkuntza sisteman ere. Gaindegiak ez dauka Euskal Herriko hezkuntza-sistemen daturik. Beraz, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak emandako datuetan oinarrituak dira jarraian agertzen direnak: EAEn, 2000. eta 2011. urteen artean hamar aldiz hazi zen kopurua. 1999-2000 ikasturtean 2.107 ikasle izatetik, 23.765 ikasle izatera igaroen 2010-2011 ikasturtean. 2002-

2003 ikasturtetik aurrera urtero ia 3.000 ikasle atzerritar gehitu zitzaizkion sistemari 2007-2008 ikasturtera arte; hortik aurrera eta 2010-2011 ikasturtera arte, hazkunde horizertxobait moteldu da. 2010-2011ko datuen arabera, EAEn, Unibertsitatez azpiko ikasleen % 8,1 ziren etorkinak, % 11,2 sare publikoaren baitan eta % 4,5 sare pribatuan. Beraz, ikasle etorkin guztietatik % 70ak jotzen dute sare publikora hiru lurraldeei dagokienez. Behatokiaren arabera, ikasle etorkin guztietatik % 40,9 Hegoameriketatik etorriak dira eta % 29 Afrikatik. Nafarroari dagokionez, 2011ko datuen arabera, bertako hezkuntza sisteman 125.617 ikasle zeuden matrikulatuta, urte berean horietatik % 8,9 ikasle atzerritarrak ziren.

Eskola-errendimendua datutan

Nafarroako Immigrazioaren Behatoki Iraunkorren Boletinarean 18. zenbakian jasotzen denez –2012ko azaroan argitaratua–, ikasle etorkinak eta autoktonoak alderatuz egin duten azterketak “emaitza positiboak” eman ditu. Izan ere, frogatzen da testuinguruaren arabera, ikasle etorkinen nahiz bertakoen joera antzekoa dela, hau da, egoera sozioekonomiko paretsuko baldintzetan, ikasle etorkinen eta bertakoen artean ez dagoela desberdintasun esanguratsurik. Hala ere, PISAko azterketan matematiketako frogetan immigranteen eta autoktonoen artean % 30eko diferentzia dago, baina hori euren maila sozioekonomiko eta kulturalaren ondorio da, txostenaren arabera. Txostenak positibotzat jotzen du, era berean, etorkinen eta bertakoen aldea desagertuz joatea atzerritarrek Nafarro-

an bizitzen daramaten denbora luza-tuz joan ahala. Txosten berean ageri denez, gizartearen ustez negatiboa da zentro batean etorkin asko kontzentratuta egotea, eta horrek ezinbestean emaitza akademiko kaskarra adierazten duela uste izatea. Ikerketek ez dute horrelakorik baieztatzen. Egia da, ordea, sarritan, eskola batean ume etorkinen kopurua handiagoa egin ahala, zenbait guraso autoktono euren seme-alabak eskola horretatik ateratzen dituztela. Zentro horietan geratzen diren ikasle autoktonoak maila sozioekonomiko baxukoak izan ohi dira eta gainera lekua libre geratzen denez, atzetik datozen etorkinak ere bertan sartzen dira. Horrek guztiak egoera are konplexuago egingen du. Edonola ere, ikastetxearen egitekoa izango da etorri berriei harrera eta jarraipen egokia egiteko prestatzea, etorkinaren adina, familia mota, edota maila sozioekonomikoa edozein delarik ere.

Antzeko zerbait gertatzen da EAEn ere. EHUk antolatutako “Ikasle etorkinen eskola errendimendua eta gizarteratzea” izeneko jardunaldian Joseba Ibarra Eusko Jaurlaritzaren Kulturarteko Hezkuntzaren arduradunak azaldu bezala, Lehen zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batzuetan, ikasle immigranteen kontzentrazio altua dago. 2010eko diagnosi-ebaluazioek emandako datuen arabera, LHko 25 zentrotan eskolatuta daude immigrante guztien % 25, eta 85 zentrotan biltzen da aro horretan eskolatuta dagoen biztanleria immigrante guztiaren % 55. Oso antzeko fenomenoak gertatzen da DBHko zentroetan ere. Gainera LHko 12 ikastetxetan eta DBHko 8tan immigranteak

dira ikasleen % 50 eta % 70 artean; eta badira % 70etik gorako kontzentrazioa duten ikastetxeak ere. “Ikasle atzerritarrak ez daude modu orekatuan eskolaraturik eta horrek ikasle horien eskola errendimenduan eraginak izan ditzake”.

EAEko ikasleen emaitzen inguruan egiten diren kanpo-ebaluazioetan, bai estatuko diagnosi-ebaluazio orokorretan zein nazioarteko PISA eta TIMSS-etan, besteak beste, ikasle immigranteen emaitzak autoktonoen emaitzen azpitik egon ohi dira. 2011ko diagnosi-ebaluazioan, LHko 4. mailan eskolatutako ikasle immigranteek 30 puntu inguruko alde dute euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean eta matematikarako gaitasunean, eta 17 puntu ingurukoa gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean. Ingelesez komunikatzeko hizkuntza-gaitasunaren kasuan, alde 26 puntutara igotzen da. Ibarrek azaldutakoari jarraiki, ikasle etorkinen emaitzei buruzko datu horietatik, ikasle autoktonoekin edo EAEko batezbestekoarekin konparazioan, ezin da ikasle etorkin guztiek oinarizko gaitasunetan oso emaitza txarrak ateratzen dituztela dioen ondorio okerra atera, ezta “emaitza kaskarretako ikaslea” estigma faltsua sortu ere. Ikasle etorkinen artean autoktonoen artean bezain handia da emaitzen aniztasuna eta, beraz, oso egoera desberdinak gertatzen dira, ikasle mota horien eskola arrakastari edo porrotari begira. “Diagnosi-ebaluazioei begiratuta, txostenean ondorioztatzen da ikasle etorkinek emaitzak hobetu dituztela hiru ediziotan, hau da, zenbat eta denbora gehiago igaro EAEko hez-



kuntza sisteman orduan eta emaitza hobeak lortzen dituzte; bestetik berriz, diagnostiko-ebaluazioaren hurrenez hurreneko ebaluazioetan gutxituz joan da ikasle autoktonoek eta etorkinek lortutako puntuazioen arteko alde”.

Etorkinen emaitza baxuagoak ulertzeko, eragin handia duten beste bi aldagai ere kotuan izan behar dira Felix Etxeberria EHUko Filosofiako eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko katedradunaren esanetan: alde bate-tik, ikasle immigranteen % 30 ez dago dagokion ikasturtean, eta ehuneko hori % 56ra iristen da 2. DBHn; bestetik, familiaren gizarte-, ekonomia- eta kultura-maila (GEKM) ikasle autoktonoena baino nabarmen baxuagoa da. Baina Etxeberriak adierazi bezala, GEKM indizeak eragina baduen arren, ez da determinantea: “Oro har, etorkinen batezbestekoa % 20koa baino baxuagoa den zentroek emaitza hobeak ematen dituzten arren hortik gorako tasa duten zentroek baino, badaude zentroak etorkin kopuru oso handia dutenak eta emaitza oso onak ematen dituztenak. Beraz, argi dago azken hitza zentroak berak

duela. Ikastetxeko alderdi metodologikoa, irakaslearen prestakuntzari dagokiona, etab. oso kontuan hartu behar dira”, dio Etxeberriak.

Emaitzei erreparatuta sortzen den beste uste oker bat ere bada gizartean: ikasle etorkinek gainontzeko ikasle-en “maila akademikoa” kaltetzen dutela, hau da, zenbat eta ikasle etorkin gehiago izan ikasgela batean, gela horretako ikasle autoktonoen maila orduan eta okerragoa izango dela: “Egindako ikerketa guztiek kontrakoa adierazten dute. Are gehiago, INCLUD-ED egindako azterketek agerian uzten dute ikasle etorkinen maila nahiz gainontzeko ikasleena nabarmen hobetu litekeela baldin eta hezkuntza esku-hartzea egokia bada”, gineratzen du Etxeberriak.

Emaitzen inguruko datuak autoktonoen eta etorkinen artean banatzeak berak, ikasleak bi multzotan banatzea dakar, multzo bakoitzeko guztiak berdinak, monolitikoak balira bezala. Egoera oso konplexua dela ahaztu gabe, Ibarren esanetan, apurka-apurka gainditu egin behar-ko litzateke “haiek” (etorkinak) eta “gu” (bertakoak) dikotomia.

Irakasleek eskura dituzten tresnak

Aniztasunari egoki erantzuteak ahalegin handia eskatzen du, eta irakasle askok baliabideak eta prestakuntza falta zaizkiela sentitzen dute. Norabide horretan lan egiteko, EAEko Hezkuntza Sailak abian jarri berri du “Aniztasunaren arretarako plan estrategikoa, eskola eredu inklusibo baten barruan” izeneko programa. Orain dela hamar urteko “Ikasle Etor-kinak Artatzeko Programa (2003-2007)”-n ditu sustraiak.

Ibarrak adierazitako moduan, 90eko hamarraldi amaieratik hasita hainbat neurri hartu ziren: “Ikastetxe-ko hizkuntza ezagutzen ez zuten ikasleak zegokien eskolan matrikulatu ondoren, ikasgela horietara bidaltzen zituzten hiru hilabetez, gutxienez, eta ikasturte batez, gehienez, hizkuntza-maila onargarri bat lortu eta, hori esker, zegokien eskolan hezkuntza-prozesuarekin jarrai zezaten. Aldi

berean, EAEko ikastetxe batzuetan hizkuntza indartzeko irakasleen figura abiarazi zen, esperimentu gisara”. Ikasle immigranteen kopuruak gora egiten zuen heinean, ordea, programen bidez lan egiten hasi ziren. Eta programa horiek abiaraztearen ondorioz, antolaketa eta giza baliabide jakin batzuk aktibatu dira. Lehenik, hizkuntza indartzeko irakasleak: 2004-2005 ikasturtean 117 zeuden sare publikoan eta egun, berriz, 242 inguru. Bigarrenik, ikasle etorkin eta atzerritarren ehuneko handia duten 80 ikastetxetan Kulturarteko Proiektuak dinamizatzen irakasleak jarri dira.

Prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zerbitzuek (Berritzeguneak) prestakuntza-eskaintza zabal bat diseinatu eta garatu dute. Gainera, material espezifikokoekin eta zabaldu dira irakasleentzat. Horren guztiaren berri eskura daiteke

Hezkuntza Sailaren webgunean.

Eusko Jaurlaritzak bezala, Nafarroako Gobernuak ere hainbat baliabide eskaintzen ditu ikastetxeetan inklusioa bultzatzeko, hala nola, prestakuntzarako ikastaro, mintegi eta jardunaldiak; era askotako programak (“Barne Hartu” mintegia, Ikastetxean inklusioa lantzen, Kulturartekotasuna...); kulturen arteko hezkuntzarako baliabide didaktikoak edota prestakuntzarako Moodle bidezko ikasgela birtuala. Horren guztiaren berri Hezkuntza Departamentuaren webgunean ematen da.

Etegabeko prestakuntzaren harira ere topa daitezke proposatutako ekintzen arrakastarako formatu berriak. Azken batean, helburua da ikasle bakoitzaren hezkuntza beharriak kontuan hartzea, eta ikasle guztien arrakasta bilatzea kohesio sozialean laguntzeko.

Ikasgelan erabiltzeko hainbat erreferentzia

Instituzioek jarritako baliabideez gain, beste erakunde, organizazio nahiz banako batzuek ere badituzte hainbat baliabide interesgarri ikasgelan inklusioa bultzatzea helburu dutenak. Hona hemen horietako batzuk:

- ALBOAN fundazioaren kulturartekotasuna lantzeko unitate didaktikoak.

- SOS ARRAZAKERIAk argitaratutako hezkuntza antirrazista lantzeko baliabideak.

- “Edukiak eta hizkuntza ikasiz” ikasle helduberrientzako material bilduma, Blanca Olalde Lopez de Aretxabalak egina.

- AISIA etorkinentzako irudizko hiztegia.

- Umeentzako soinu hiztegiak.

- *Zubirik Zubi* bildumak hainbat ekintza proposatzen ditu ikasleentzako eta horien senideen harrera-prozesuarekin, eskolako hizkuntzak ikastearekin eta curriculum-ereduarekin lotuta.

- Kulturarteko hezkuntzarekin lotura duten hainbat blog interesgarri:

Eskolarik mundura:

<http://eskolatikmundura.blogspot.com.es/>

Hipilagun:

<http://zipilagun.blogspot.com.es/>

Irungohipiak:

<http://irungohipiak.blogspot.com.es/>



Aniztasunaren klabeak

Ikasleen aniztasuna ikaragarritzko erronka da gaur egun Euskal Herriko ikastetxeetan. Ez bakarrik kultur aniztasunari dagokiona, baita gaitasun aniztasuna, sexu-aukerena, hizkuntzena, erlijioarena... kultur aniztasuna kudeatzeko baliabideak eta prestakuntza ezinbesteko dituzte irakasleek, baina baita begirada inklusibo bat ere, hau da, ume bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzea, eta bakoitzaren dohain eta gaitasunak ahalik eta hobekien garatu ahal izateko laguntzea. Ikasle etorkinen eskola-errendimendua eta gizarteratzea jardunaldietan hainbat klabe eman ziren gai zail honi erantzuten lagun dezaketenak. Hemen bildu ditugu Kutlay Yag-

mor eta Ignasi Vila, Herbeheretako Tliburg eta Gironako unibertsitateetako irakasleak hurrenez hurren, emandako hainbat klabe:

Aniztasuna, ikasle guztien artean

Etorkinei buruz hitz egiten hasi aurretik, Ignasi Vilak etorkinei buruzko hausnarketa bat egin zuen. “Etorkinak” eta “bertakoak” bi zaku, bi egitura monolitiko gisa ikustearren arriskuak ohartarazi zuen. “Etorkin” hitzak, berez, atzerrian jaioei egiten die erreferentzia. Baina ikasgela berean Euskal Herrian urteak daramatzan “etorkin” bat egon liteke, eta aurreko hilabeteetan etorririko bat; etorkin batzuek kulturalki antzekotasunak izan

ditzakete, besteek ez, ez hizkuntzan, ohitura edo erlijio aldetik. Jatorri atzeritarreko familiadun haurra, berez, ez da etorkina. Baina hemen autoktonoek bertakotzat hartzen ote dute? Noiz uzten dio batek etorkin izateari?

Gironako unibertsitateko irakasleak ñabarduraren garrantzia nabarmendu zuen, etorkin guztiek —edo jatorri atzeritarrekoek— ez baitituzte ezaugarri berdinak partekatzen. Eta ñabardura garrantzitsua da hori: “Komunitateen artean dibertsitate handia dago; baina baita komunitate bakoitzaren barruan ere. Ñabardurak aintzat hartu behar ditugu. Jatorri txinatarreko nerabe etorri berri batek eta kolonbiar batek ez daukate zerikusirik”.

Ikerketa eta estatistikak zertarako ?

Kutlay Yagmor kritiko azaldu zen ikasle etorkinen errendimendu akademikoa neurtzeko ikerketa eta estatistikekin, eta horien intepretazioekin. Yagmorrek balioa ematen die estatistikei, baldin eta ikasle etorkinen balizko eskola-porrota azaltzeko arrazoiak aurkitzeko egiten baldin badira eta ez ikasle horiek estigmatizatzen eta aurreiritziak sortzeko.

Errendimendu eskolarra ezin da talde etnikoen errendimendu eskolarrarekiko konparazioan aztertu. Yagmorren arabera, estatistikak talde etnikoen arabera baldin badira, eta emaitzetan taldeen arabera desberdintasunak baldin badaude ezberdintasun horien jatorria azalduko duten arrazoiak bilatu behar dira. “Kontuz makro mailako emaitza konparatiboekin. Garrantzitsua da haur etorkinak ez badoaz ikasketetan

Aniztasunaren kudeaketa

ondo, arrazoiak bilatzea”. Herbeheretako irakaslearen arabera, ikerketak eskola porrotaren zergatiak aztertzeko egin behar dira. “Ikasgeletara joan eta gela bakoitzeko egoera erreala aztertu behar da”.

Aurreiritzien eragina

Yagmorrek ikerketatik eratorritako estigmatizazioaz eta aurreiritziei buruz ere hitz egin zuen, horrek ikasle etorkinen errendimendu akademikoan eragina izan baitezake. Yagmorrek azaldu zuen etorkinen jatorrizko herrialdeak harrera herrian daukan prestigioak eragin zuzena daukala ikasle horien autoestimuan, eta ondorioz ikasketetan.

Halaber, irakasleak, gizarteko beste pertsona guztiek bezala, barneraturik izan ditzaketen aurreiritziei hausnartzeko beharra azaldu zuen, horiek ere eragina baitute ikasgelan. Testuliburuetan hainbat etnia edo jatorri buruz egon litezkeen estereotipo inplizitu edo esplizituei arreta jartzeko aholkua ere egin zuen Yagmorrek.

Eragina izan dezaketen faktoreak

Ikastetxearenezaugarriak

Etorkinek eskolan errenditzeko zailtasunak baldin badituzte, ikasle euren gaitasun eta egoerari begiratzeko ez dela aski esan zuen Yagmorrek: “Askotan, gehiegitan, ikasle etorkinei egozten zaie euren porrotaren errua osoa”. Ikastetxea bere egiturari eta irakasle bakoitzak bere egunerokoan egiten duen lanari erreparatu beharra daukala adierazi zuen.

“Ikastetxeak ez ote daude prestatuak, metodologikoki, autoktonoei

erantzuteko?”, galdetu zuen Yagmorrek. Ikastetxea egokitu al da aurrean duen errealiterara? Ikastetxeak generatu al da profil berriko ikasleei erantzuteko? Antolaketa, estrategia, metodolgoia... berri al du ikastetxeak etorkinen eskolatzeari erantzuteko?

Ikastetxe batzuek etorkin kopuru handia hartzea arazo gisa ikusten du Herbeheretako irakasleak. Segregazioak nola eragiten du?, galdetu zuen; “etorkinak ikastetxe batean mäsifikatzen direnan, ez ote dago ezkutu diskriminazio bat?”. Herbeheretan beltzen eskolak eta zurien eskolak daudela azaldu zuen. Beltzen eskoletan ikasle %90 etorkinak dira, “autoktonoek ez dute eskola horietara joan nahi”. Euskal Herriko datuek ere erakusten dute etorkinak eskola batzuetan kontzentratzen direla, nahiz eta datuak, oro har, ez diren Yagmorrek azaldukoak bezain altuak.

Felix Etxeberriak azaldu zuen, aurreiritzien kontra, etorkinak gelan edukitzeak ez duela autoktonoen errendimendu akademikoa oztopatzen, baina eragiten diola etorkinen euren errendimenduari.

Gauregun familiek urte osoan migratzen baitute eta ez kurtso hasieran soilik, eta ondorioz, ikastetxearen antolakuntzari dagokionez asko eragiten du ikasturtea hasita dagoela ikasleak etortzeak. Ikastetxeek egoera horiei aurre egiteko prestatu behar dute. Adituen arabera, egoera horiek aldeztu aurretik planifikatzeak laguntzen die irakasleei. Baliabideak behar dituzte, eleaniztasunean, curriculum-erantzukizunak, etxekolanetan... laguntzeko.

Irakasleenezaugarriak

Irakasleentzako buruzko eztabaida behar dela adierazi zuen Yagmorrek, haren hitzetan, gizartean daukan aurreiritziei eragina izan baitezakete irakasleentzako lanean. Horrez gain, irakaskuntza-metodologiak zailtzen jartzeko premia azaldu zuen. Denon artean, irakasleek euren ikastetxetan dagoen hizkuntza eta kultura aniztasuna kudeatzeko baliabideak eta formazioa behar dituztela azaldu zuen.

Hizkuntzaren jabeakentzara etorririk, Yagmorrek dio ikasleek laguntzaileak behar dituztela eskolako hizkuntza ikas dezaten. Izan ere, hizlariarentzat, eskolako hizkuntzaz jabetzeak arrakasta akademikorako ateak irekitzen ditu.

Ikasleenezaugarriak

Irakaslearen etxeko kulturaren eta eskolakoaren artean desberdintasunak daudenean, egokitzapen eta integrazio arazoak bizi ditzake haurrak eskolan. Kultura arteko talka azaltzeko adibide bat eman zuen: zenbait jatorritako etorkinen familiek autoritate gisa ikusten dute eskola eta horregatik ez dute esku hartzen euren seme-alaben ikaskuntza-prozesuan; hori irakasleek, ordea, interes falta gisa uler dezakete. “Ezberdintasun kulturalak hezkuntza sistemari zuzenki eragiten dio, beraz, hor beharrezkoa da komunikazio-bideak irekitzea”. Aurrez beste sistema batean eskolatu diren ikasleentzat ere sistema berriak zenbait gauza arrotz izan ditzake, aipaturiko autoritatearekiko harreman hori, baina baita ikas-ereduak, gatazkak bideratzeko modua, kooperazioa... ere.

Ikasle etorri berriak defizit teoriaren arabera begiratu beharrean, hainbat esperientzia eta ezagutza dituzten pertsona gisa begiratzea proposatu zuen Ignasi Vilak. “Aurrez dakiten guztia kontuan izaten al du eskolak? Eskolako hizkuntzan ez jakiteak ez du esan nahi ez dakitenik; Ikastetxe-ek baliatu beharko lukete ikasgeletan duten dibertsitate kulturalaz eta sozialaz, baita eduki curricularrak garatzeko ere”.

Familienezagarrak

Beste jatorri kultural bateko familiek sarri eskolaz eta ikasleaz duten irudia Euskal Herrian dugunaren ezberdina izan ohi da. Ignasi Vilak azaldu zuen “ikastun”-aren kontzepzio desberdina edukitzeak familiarengan eta eskolarengan espektatiba diferentek sor ditzakeela.

Etorrin guztien egoera sozioekonomikoa ez da berdina, bertan jaiotako haurren familia ez den bezalaxe. Hemen ere ñabardurek garrantzia dute: Herbeheretako ikerketa batek erakutsi du, maila sozioekonomiko baxuko familia autoktono herbeherarreko haurrek eta maila bereko etorkinen haurrek antzeko errendimendu akademikoa dutela; aldiz, diferentzia handiagoa dagoela maila sozioekonomiko altuko familia herbeherarreko (azken hauen emaitzak hobek dira).

Frantziako Estatuan egin izan diren ikerketek azaldu dute etorkinen familia askok duten maila sozioekonomiko baxua izan dela haur horiek hezkuntza sisteman aurrera egitea zaildu duena. Espainiako Estatuan egin diren hainbat ikerketek —tartearen Vilarenak bi (2004an)— bestelako

emaitzak eman dituzte: ez dute hezkuntza porrota nahiz arrakasta familiaren maila sozial, ekonomiko eta hezkuntza-mailarekin zuzenki lotzen. Argi dago, haatik, familien egoera juridikoa eskasagoa izan ohi dela etorkinen kasuan ikasle autoktonoengan baino.

Badira, ordea, familia etorkinek partekatzen dituzten hainbat ezaugarri. Adibidez, eskola hizkuntza arrotz izatea. Etxerako lanetan umeei laguntza emateko aukera gutxiago izan ohi dute eskolako hizkuntza ezagutzen ez dutenean. Edo edukiak euren maila akademikokoak baino altuagoak direnean. Arazo hauek, alabaina, familia autoktonoek ere bizi ditzaketen arazoak dira.

Oro har etorkinen seme-alaben mugikortasuna handiagoa izan ohi da autoktonoena baino (nahiz eta honen ere aurrerantzean aldatzeko itxura daukan). Zenbait etorkin komunitatek harrera-herrian integratzeko interesik ez dutela azaldu zuen Vilak. “Batzuek ez daukate integratzeko intereseik, hori ere errealitate bat da, eta kohesio sozialak garrantzi handia hartzen du”.

Eskolako hizkuntzaren menperatze-mailak eragin zuzena du ikasle etorkinen eskola errendimenduan

Hizkuntza konpetentzia arrakasta lortzeko aldagai garrantzitsua da, horretan bat etorri ziren adituak, “baina ikasleen jatorriko hizkuntzaren aurka egitea ez da bidea”, erantsi zuen Yagmorrek. “Jatorrizko hizkuntzan maila ona izateak lagunduko die batetik, bigarren hizkuntza hobeto

ikasleak; eta, bestetik, eduki akademikoak barneratzen”.

“Ikasle askok jakin badakite —azaldu zuen Vilak—, baina beste hizkuntza batean. Bere jatorrizko hizkuntzan ondo eskolarizatua dagoen ikasleak aurrerapen handiak egin ditzake hizkuntza berrian”. Vilaren arabera, murgiltze-linguistikoaren arrakasta izango da hizkuntza berria edukiak jasotzeko tresna bihurtzen dena. Gero eta denbora luzeagoa eman Katalunian, hizkuntza horretako konpetentzia gehiago garatu dituzte ikasle etorkinek. Baina ez harrera geltan ordu gehiago eman dituztelako, baizik eta gelan txertatuago daudelako”. Vilak ingurune soziolinguistikoko hizkuntzaren ikasketan daukan garrantzia erakutsi zuen Kataluniako ikerketa baten bidez. Ikerketa horren emaitzen arabera, amaren hizkuntza eta maila kulturala baino garrantzitsuagoa da testuinguru soziolinguistikoa (PISAko emaitzeak kontrakoak erakutsi ohi dute: amaren maila soziokulturalak zeresan handia izan ohi du seme-alaben errendimendu akademikoan). “Harrera gelek laguntza-gela izan behar dute; baina ikasi, hizkuntza bat bizitza errealean erabiliz ikasten da. Non ikasiko du haur batek hobeto katalana? Marokoarrez, txinor, eta senegaldarrez inguraturiko gela bereizi batean, ala kalean modu naturalean katalanez egiten den lekuan? Haur batek harrera gelan ordu asko pasatzeak ez dagoela egokiturik esan nahi du”.

Eztabaida interesgarri baterako galdera ezarri zuen Vilak. Nola ebaluatu atzerritik etorri den ikaslea?

lorea agirre



ELKARRIZKETA

Kazetaria

“Euren intereseko gaiak agertzen direnean, badute zeresana, eta, beraz, haurrek eta gazteek egingo dute euskaraz”

Kazetaria eta antropologoa da Lorea Agirre (Beasain, 1968), eta Huheziko Sorguneak ikerguneko ikerlaria. Euskararen eta euskal kulturaren biziberritzean dihardu, euskararentzat arnas-guneak pentsatzen eta sortzen. Oarsoirria proiektuaren barruan umeen aisialdi parte-hartzailea, euskalduna eta hezitzailea bultzatzen duen ekimenean dihardu, beste hainbat kiderekin batera. Haurrei hitza eta boterea eman behar zaiela dio, baita euskaraz egin dezaten ere.



Ikastetxe baten atariaren irudia: haurrak eskolan sartzen, euren artean gaztelaniaz mintzo direla, eta irakasleak, “egun on..., euskaraz!”.
Zertan ari gara?

Galdera horren erantzunak adar asko ditu. Eszena horren bidez esplik liteke gure gizarte osoa, eta ez bakarrik hizkuntzaren ikuspuntutik, baita giza harremanen ikuspuntutik ere: zer gizarte sorten ari garen... Hor ikusten dudan adar batek, lehenik eta behin, erakusten dit hezkuntzari eskatzen zaiola ez gurasoei, ez gizaritari eta ez beste inori eskatzen ez zaiona: dena. Ume eta gazte idealistak, justizia sozialean hezitakoak, hizkuntzaren eta kulturaren aniztasuna errespetatuko dutenak, burujabe izango direnak, kritikoak... Hori dena hezkuntzak egin behar du; eta, gainera, eskolatik irtetea, kalea erabat kontrakoa dela ikusten duzu.

Bigarren gogoeta: gaur egun haurrak nork hezten ditu, hezkuntza-sistemak ala youtubek, tuentik, telebistak edota sare sozialek? Horiek berehalakoak dira —uneoro konektatuta daude—, eta horizontalak dira. Gaur egun askotan erabiltzen den terminoa da ‘sozializazioa’: ez hezkuntzan, ez kulturaren, ez hizkuntzan, ez da transmisioa egiten, baizik eta sozializazioa egiten da; hau da, informazioa ez doa goitik behera —irakasleak ikasleari, edo gurasoek seme-alabei—; parekoaren artean doa, nahiz eta, segur aski, ez den erabat parekoen artean joango.

Bestetik, hizkuntzaren normalizazioa ere hezkuntzaren esku utzi da. Orain dela 30-40 urte, bazegoen ideia bat: erregimen berrira pasatu ginenean

eta EAEn hizkuntzaren normalizazio-prozesua abian jarri zenean, pentsatzen zen belaunaldi batean ez ginela % 100etik urrun ibiliko euskalduntasunean; pentsatzen zen hezkuntzatik pasatuko ziren ume guztiak euskaldunak izango zirela. Gaur egun, ikusi da ez dela horrela gertatzen: hizkuntza bat ez da ikasten gela barruan, hizkuntza bat bizi egiten da. Baina hizkuntza bat bizitzeko, lehenik eta behin, hizkuntza hori arnastu egin behar duzu, eta, are gehiago, ume eta gazte arteko giro batean. Ez baduzu arnasten, zaila da euskalduntzea. Euskara eskolan obligaziozkoa den gune batean transmititzen den hizkuntza bihurtu da, edo erabiltzera behartzen den hizkuntza; baina benetako oxigenoa beste hizkuntza bat da. Oso gune euskaldunetan ere, nahiz eta eskolan oxigenoa euskara izan, dagoeneko hizkuntza-ordezkapena gertatzen ari dela ikusten da. Horrek esan nahi du ezin dela hezkuntzaren esku utzi euskararen biziberritzea eta transmisioa, gero, eskolatik irten eta beste mundu bat ematen ari bagara. Irakasleak zer egin behar du? Ba, hor ere bada go, beharbada, beste adar bat, oso delikatu dena eta kontuz eta errespetuarekin esan nahiko nukeena: hezkuntza-sistema nola eta zertarako dagoen antolatua ikusi beharko genuke. Zer ari gara irakasten? Zertarako? Zer ematen diogu garrantzia? Umeak zer parte-hartze dauka ikasketa-prozesu horretan? Dena goitik behera dator? Eta euskara beste gai bat besterik ez da hor.

Juan Luis Zabalak *31 eskutik* blogean idatzi zuenez, euskara batzuetan *un puto rollo* da, bai irakaslearentzat, bai ikaslearentzat, bai kalearentzat... Uste dut oso kontuan hartu behar dugula zertan ari garen, eta seguruenik goitik behera berrikusi beharko dugu, eragile askoren aldetik konpromisoa hartuta.

Euskararen biziberritzea nahi badugu, helduon zer jarrerak lagunduko du?

Jarrera sinpleena, begi-bistakoena, zera da: ez maitatu hainbeste, eta erabili. Oxigenoa erabiliz sortzen da; beraz, euskara erabiltzeko guneak sortzen ba-

“Ez gurasoei, ez gizarteari ez beste inori eskatzen ez zaiona eskatzen zaio hezkuntzari: dena”

“Ez hezkuntzan, ez kulturaren, ez hezkuntzan, ez da transmisioa egiten, baizik eta sozializazioa egiten da; hau da, informazioa ez doa goitik behera, parekoen artean doa”

dira, jarrera horrek % 100ean lagundu-ko luke. Gerta liteke gurasoek edo helduek euskaraz ez jakitea, baina hizkuntzarekiko jarrera lagungarria izatea, transmititu bailiteke hizkuntzaren aldeko jarrera; “garrantzitsua da, ikas ezazu” dioen jarrera; “besteak beste, hemengo hizkuntza delako; komunitatea edo herria, kultura, egiten ari garelako, berreskuratzen ari garelako, maite dugun hizkuntza delako, euskaldun izan nahi dugulako...”. Aldi berean, guraso edo heldu euskaldunen jarreran, ñabardura bat egin behar da, euskaraz egiteak ez baitu esan nahi aldeko jarrera dutenik. Euskaraz funtziona dezakezu erabat, baina seme-alabei hizkuntza horri buruzko benetako gogoetarik transmititu gabe.

Kontzientziaz ari zara?

Bai, eta heziketaz. Beste kasu batzuetan, gurasoak erdaldunak diren kasuetan, seme-alabak oso kontzientziatuta egon daitezke, eta hizkuntza balio handikotzat har dezakete. Adibide politikak daude. Nik Fredi Paiari entzun izan diot, guraso erdaldunak edukita, amak beti esaten ziela: “*que habléis en euskera*!”. Eta beraientzat 14 urtera arte euskaraz “*un puto rollo*” izan zen, gurasoen jarrerari esker *klak* bat egin zuten arte, kontzientzia hartu zuten arte.

Beste eremuan, Urolako euskaldun peto batek hizkuntzarekiko atxikimendu hutsa izan dezake.

Zer jarrera hartu behar lukete instituzioek –tarteetan eskolak- euskararen biziberritzeari laguntzeko?

Nik uste dut probatzeko modukoa izango litzatekeela hezkuntza-prozesuan ikasleek benetako parte-hartzea izatea. Horrek esan nahi du, adibidez, ume eta gazteek eskolan, gela barruan, beraiei interesatzen zaizkien gaien buruz hitz egin behar dutela; futbola, tuentia edo dena delako gai horiek eka-ri egin behar direla ikasketa-prozesura. Euren intereseko gaiak agertzen direnean, badute zer esana, eta, beraz, hitz egingo dute. Hor, baldintza bat jartzen dugu: euskaraz egingo dugu. Ika-

keta-orduen barruan euren orduak kudeatzeko modua izateak asko lagunduko lioke euskarari. Zertaz hitz egin nahi dute haur eta gazteek? Ze informazio topatu nahi dute? Zer antolatu nahi dute? Zein dira beraien kezak? Euren interesguneetatik abiatu behar dugu, bestela, ume batzuek ez dute hitz egingo matematikako eskoletan euskaraz. Espazio horretan euskaraz hitz egitea, alde batetik, obligaziozkoa izango da, bai; baina, era berean, oxigenoa sortuko dugu. Ikasketa-prozesuaren barruan, bazterrekoa ez den ordu bat —jolas-ordua ez dena, balioetsiko den eta garrantzia emango zaion tarte bat baizik— eskaintzen du eskolak, ikasleei interesatzen zaien gai bat jorratzeko. Horrelako espazio batean, oro har, umeak prest daude eskatzen zaien hizkuntzan egiteko; hor dago gakoa: euren intereseko gai batez ari badira, egingo dute euskaraz.

Haurrak hauxe ikusi behar du: “Hor ze ondo ari diren pasatzen!”. Horrela, hara joango da, eta horeuskaraz egingo du. Euskarak abangoardian egon behar du. Irekienak izan behar dugu, parte-hartzea gehien bultzatzen dugunak; autogestioa, gure erabakiak hartzeko guneak, eztabaidaguneak... bultzatu behar ditugu. Baldintza bakarra izango da: euskaraz izan behar duela —baldintza gehiago ere jar daitezke, noski—.

Baten batek esango dizu, ordea, euskara baldintza gisa jartzen duzun unetik inposatzen ari zarela.

Ez, inondik inora ere ez. Baldintzak, berez, beti jartzen dira, pentsaturik ala pentsatu gabe. Baldintzaturik gaude alor guztietan: adinaren arabera, estetikaren arabera, generoaren arabera, klase sozialaren arabera, hizkuntzaren arabera...

Hizkuntzaren baldintzari dagokionez, lehenengo egiaztapena zera da: nahi dugu euskarak indarra har dezan, zabal dadin, bizigarri izan dadin...? Demagun baietz, hala diote inkesta guztiek. Zer esan nahi du hori nahi izateak? Hizkuntzaren aldeko politika batzuk

jarri behar direla abian —administratibotik, gizarretik, elkarteetatik...—. Oinarri batzuk onartu behar ditugula esan nahi du: euskara oxigeno gisa jartzen badugu, beste hizkuntza bat kendu egin behar dela esan nahi du. Ez dago espaziorik bi hizkuntzarentzat. Hizkuntza bat menpeko egoera absolutuan dagoenean, elebitasuna ez da lehenengo urratsa; elebitasuna helmuga bat da. Gaztelania espazio batetik ateratzen dugunean, gaztelania kendu egiten dugu; baina gaztelaniak hegemonia galtzen du? Ez, lortzen duguna da euskarak espazio bat gehiago irabaztea. Gaztelania baldintzarik gabe eta askatasunez espazio bateko hizkuntzat hartzen dugunean, zertan ari gara? Hain da hegemonikoa, non gaztelaniaren alde bakarrik ari baikara. Hori da hizkuntzaren ekologiak esaten duena: euskararen alde egiten dugun guztia hizkuntza guztien alde egiten dugu; ez da bestearen kontra, edo besteari espazioa kentzea; norberaren baitan bi edo hiru hizkuntza inongo arazorik gabe bizi daitezkeen bezala, sozialki ere gerta liteke hori. Ni, euskara jakin gabe, gune batean egiten dena gustatzen zaidalako gune horretara gerturatzan banaiz eta horko oxigenoa den hizkuntza hori aldatzea eskatzen badut, zer eskubide dut horretarako? Norbanakoaren eskubideak ditugu, eta gure hizkuntzan egiteko eskubidea dugu; eskubide kolektiboak daude, eta, kasu honetan, hizkuntzaren eskubideak daude. Euskarak eskubideak ditu bere lurtean gune bizigarriak eta praktikoa izateko. Euskara hemen berreskuratzen dugu eta hemen hitz egiten dugu, edo galdu egingo dugu. Espainiera, beharbada, gune batzuetatik kanpogeldituko da, baina espainiera ez da galduko, ez dago arriskuan. Munduaren erdiak ez bada, herenak hitz egingo du.

Hizkuntzak ere bere eskubideak ditu. Eskubide horiek norbanakoaren eskubideen gainetik daude? Testuinguru batzuetan bai.

Gure gizarrean halako dibortzio edo urrutze bat gertatu da euskararen eta



kulturaren artean. Hau da, posible da euskaraz bizitzea euskal kultura bizi gabe (gozatu gabe, kontsumitu gabe). Nolatan gertatu da hori, eta zer ondorio izan ditzake?

Hori minorizazioaren ajeetako bat da. Hizkuntza hegemonikoen eremu guztiak dituzte normalizatuta, eta kultura hori transmititzen da, bai hezkuntza-sisteman, bai hedabideetan, bai gizarrean, bai kalean, bai liburutegetan... Transmisioa erabatekoa da. Hizkuntzarekin batera dator kultura horrek mendeetan sortu duena, egunean sortu duena eta aurrerantzean sortuko duen ondare zabal hori guztia. Minorizazioak beti larrialdian jartzen zaitu;

zeri helduko diogu? Zenbait unetan, zerbait utzi beharko da; hizkuntza hartzen dugu, eta kulturaren transmisioa bigarren lekuan gelditzen da. Eta transmisio-kateak eten egiten dira.

Hizkuntza eta kultura oso loturik doazen bi kontzeptu dira; izan behar dute. Arlo horretan, badago debate handi bat: hizkuntza bat kultura bati atxikita dago ala ez? Oso eredu desberdinak daude, hizkuntza bakoitzaren hegemoniaren arabera. Askotan ematen du guk esentzialismora jotzen dugula, eta ez da hori; hizkuntza batek hizkuntza horretan sortzen den kultura du eta ekarri du mendeetan, eta, zorte pixka batekin, aurrera eramango du.

“Euskararen berreskurapena nazio edo herrigintza baten berreskurapena da

”

“Gaur egun hauxe galdetzen da: ‘nor naiz ni?’; eta erantzuna: ‘parte hartzen dudan lekukoa naiz ni’; alegia, hitza, boterea eta erabakiguneetan egoteko aukera ematen didaten lekuetaka naiz, eta, bestela, ez naiz

”

Hizkuntza bat, kultura bat. Hori horrela izan da tradizionalki kultura alemanean, frantsesean... Gaur egun, diskurtso berriak sortzen ari dira, eta oso hegemonikoak diren hizkuntzek honako hau diote: hizkuntza ez da garrantzitsua; espainiarrek ingelesez kantatzen badute, hori ere kultura espainiarra da, eta ez da ezer pasatzen. Noiz arte ez da ezer pasatzen? Frantsesa hizkuntza hegemonikoa da; baina frantsesaren azken 200 urteotako historia ikusirik, *le grand France* izatetik eta munduko nazioarteko politikagintzako eta merkataritzako hizkuntza nagusi izatetik bere eremu barrura mugatzen den hizkuntza izatera pasatu da, eta, horren inperialista izanik, kolonietatik etorri zaizkion hizkuntza guztien eta ingelesaren mehatxupean bizi da. Horren ondorioz, erabaki dute frantses kultura frantsesez egiten dena izango dela. Badira beste eredu batzuk; Kataluniak, adibidez, kultura katalanaren barruan, gainerako hizkuntzetan egiten dena sartzen du, Espainiaren diskurtsoa dauka horretan. Katalana hizkuntza minorizatua den arren—beraiek ez dute hala izendatzen—, hegemoniaz jokatzeko duen herri bat da.

Gu begi-bistako minorizazio-egoera batean gaude; joan zaitez Nafarroara edo Iparraldera, eta hango egoera drama bat da. Gure egoera minorizatu honetan, kultura hizkuntzari lotu behar diogu.

Zer gertatzen da euskarazko libururik irakurtzen ez duen euskarako irakaslearekin, adibidez?

Hori inkongruentzia bat da. Joxe Azurmendik dio gu komunitate birrindu batetik gatozela, hiztun komunitatearen eta komunitate kultural eta nazionalaren ikuspegitik. Gizarte guztiak hausten dira, belaunaldi guztiek aurrekoa hausten dute, neurri batean, baina gurea dramatiko da. Euskararen berreskurapena nazio edo herrigintza baten berreskurapena da. Justizia sozialean, literaturan... egiten dugun bideak herrigintzari ekarpena egingo dio, baldin eta euskaraz baldin bada.

Kulturaren transmisio-katea, ordea, erabat etenda dago, baita euskara oso instalatuta dagoen eremuetan ere.

Euskal kulturaren kontzepzioaren inguruko azken ikerketek diote testuliburuek euskal kultura paisaiarekin, gastronomiarekin, herri-kirolekin... lotzen dutela; alegia, turista japoniarrek lau eguneko bisita batean hartzen duten irudi horixe bera dugula gure kulturaz: paisaia berdea, janari ona eta harri-jasotzaileak. Hori da gure kulturaz transmititzen ari garena ikastetxeetan, Begoña Bilbaok egindako ikerketaren arabera. Cervantes ezagutzen dugu, eta Axular ez. Norbaitek esan lezake: Axular ezagutu behar da? Tira, ba..., Cervantes ezagutu behar da? Nik uste dut horri heltzea urgentea dela. Euskal kulturaren definizio berri bat behar dugu, hizkuntzari atxikita egongo dena. Gezurra badirudi ere, oraindik ez da existitzen.

Arrue ikerketak erakutsi zuen haurrek euskara ikastetxearekin lotzen dutela eta, beraz, gela barruan egiten duten askok jolas-orduan ez dutela euskaraz egiten. Aisialdian euskaraz egiteak nola eragin dezake haur horien hizkuntza-ohituretan?

Batetik, aisialdia, ondo pasatze hori, euskaraz izateak hizkuntzarekiko beste jarrera bat ematen dizu. Badira errealitateak non euskara eskolan baino ez den entzuten. Hori haurrak ikastetxe ingeles batera bidaliko bazenitu bezala da: euskara atzerriko hizkuntza gisa ikusiko dute, eta maila horretan menperatuko dute. Gustagarria den guztia euskaraz ematean, hizkuntzarekiko pertzepzioa aldatu egiten zaizu praktika horretan. Hori da gakoa. Horren barruan, garrantzitsua da parte-hartzearen bidea, konbentzitu nago ni. Umeek har dezatela hitza, baina har dezatela benetan. Ondorio guztiekin. Eta guk, trukean, euskaraz egiteko eskatuko diegu, eta baliabideak jarriko dizkiegu euskaraz egiten dezaten. Eman diezaiegun hitza haurrei, azken batean hitza ematea boterea ematea baita—botere handia edo txikiagoa—. Nik

uste dut euskarak hori egin behar duela.

Lehen, soziologian, identitatearen garrantziaz hitz egiten zen: “ni naiz” euskalduna, donostiarra, ataundarra, edo dena delakoa; perteneziaz hitz egin izan da hurrena, “nongoa naiz?” galderaz, eremu geografikoko, kultureko edo beste eremu bateko perteneziaz. Eta, hirugarrenik, Baumanek indarrean jarri zuen ideia jabetzarekin dago lotuta: “ni kontsumitzen dudana hori naiz”. Gaur egun, hauxe galdetzen da: “nor naiz ni?”; eta erantzuna: “parte-hartzen dudana lekukoa naiz ni”; alegia, hitza, boterea eta erabakiguneetan egoteko aukera ematen didaten lekuek naiz, eta, bestela, ez naiz. Uste dut gaur egun hori kontuan hartu behar dugula, politikan eta beste eremu guztietan kontuan hartzen ari diren bezala. Iritsi gara une batera, non goitik beherrako ereduak—goitik behera antolatutako ludotekak, aisia ereduak, goitik behera antolatutako hezkuntza-siste-

mak...— porrot egin duen. Besteak beste, goitik behera zetorrelako informazio guztia lehen, eta, orain, izkina guztietatik datorrelako.

Aisialdia euskalduna izan dadin ari zarete Oarsoirria proiektuan. Zu proiektu horretan zaude Mondragon Unibertsitateko Sorguneak ikertegiko kide gisa. Haurraren parte-hartzea eta euskara jartzen ditu proiektuak erdigunean. Zein dira proiektuaren oinarriak?

Duela hiru urte abian jarri zen proiektu bat da. Proiektu horretan gauden, Sorguneak gisa, euskararen eta euskal kulturaren ikerketan jarduten dugulako. Ikerketa bat egin genuen, eta neurri batzuk proposatu genituen ikerketa horretan, euskara erdigunean jarriko duten herri-mailako eredu batzuk bultzatzeko; tokian tokiko prozesuak izango dira, behetik gorakoak, herrietako jendeari garrantzia emango dietenak, eta bertako sormena bultzatuko

dute, horrek ekarriko baitu bai euskararen eta bai kulturaren biziberritzea. Eta hori goiko mailako kulturarekin lotzea lortu behar dugu, Atxagarekin, adibidez. Gu bide horretatik hurbildu ginen proiektu honetara. Eta hor zeuden Oarsoaldeko Mankomunitateko euskara teknikariak, hizkuntzaren familia-transmisioan lan eredugarria egin dutenak, eta, beste aldetik, Irrien Lagunak. Hiru taldeon konbinazio horretan, ados geunden puntu askotan, besteak beste, arnasaguneak sortzeari eta aisia lantzeari dagokienez (gure ikerketako ondorioetan ere jaso genuen euskara hezkuntza formaletik atera behar zela eta gune gozagarriago-etara ekarri behar zela).

Oarsoaldeko lau herritan proiektu bana antolatu genuen, umeen aisialdi parte-hartzailea, euskalduna eta hezitzailea bultzatzeko. Parte-hartzailea diogunean, esan nahi dugu herri horretan dagoen saretik abiatuko garela. Guk parte-hartze prozesua nola egin,



lorea agirre

E

“ Euskararen berreskurapena nazio edo herrigintza baten berreskurapena da

”

“ Mundu hegemoniko honek, hizkuntza bakarrak, botere bakarrak, izateko modu bakarrak... ez ote dio galga jartzen euskarari, feminismoari, integrazioari eta berdintasunari jartzen dion bezalaxe?

”



nola ez egin, nola antolatu... adieraziko dugu, eta aholkuak emango dizkiegu, gure jakintza jarriko dugu; eta udaletako teknikariek euren jakintza eta baliabideak jarriko dituzte, toki bakoitzean erabakitzen dutena aurrera eramateko. Irrien Lagunen iruditeria daukagu aterki modura, umeak eta gurasoak elkartzeko. Irrien Lagunekin, behar dugun oxigenoaren erdia badugu jada. Proiektuan, umeek proposatuko dute zer egin, elkarren artean adostuko dute; eta, horren ondoren, auzolanean egingo da.

Prest al gaude umei entzuteko? Prest bi zentzutan, batetik, zentzu demokratikoan; ariketa demokratiko gisa prest gaude umei entzuteko?

Prestegon behar dugu. Umeek guri entzun diezaguten nahi badugu, guk prest egon behar dugu umei entzuteko.

Baina historikoki gauza asko egin dira umeentzat, umeak kontuan izan gabe.

Dena. Eta herritarrentzat herria kontuan hartu gabe. Ona da umeek parte hartzea eta kultura horretan hezte. Denok herritar bihurtzen ari gara, komunitatea osatzen, eragile izaten, iritzia ematen, erabakietan parte hartzen..., nahiz eta horrek eztabaida eta saltsa ugari ekarri.

Eta, ohitura aldetik, prest al gaude, ba al dakigu umei entzuten? Haurrei ezin zaie bat-batean hitz egin dezaten eskatu.

Ikasketa-prozesu bat da. Guk Tonnucirengandik edan dugu, bera da umeen parte-hartzeari buruzko teoriarari nagusietako bat. Badira gehiago ere, hezkuntza-alorretik datozenak.

Hitzarmen bat egin behar duzu umearekin, nahiz eta, berez, hitzarmena zeure buruarekin egiten duzun. Ni prozesu honetan sartzen baldin banaiz, esan behar diet haurrei prest nagoela beraiei hitza emateko, entzuteko eta beraiek esango duten hori defendatzeko eta laguntzeko. Horrelako prozesuak antzezpen huts bilakatzeko arris-

kua dago: txikien udal-batza eta horrelakoak antolatzea. Eta ez, ez da hori. Antzerkiarena burutik kendu behar zaie beraiei ere; ohituta daude eskua altxatu eta helduok entzun nahi dugun hori ahalik eta lasterren esaten. Hori da hezkuntzak erabiltzen duen sistema: “Zeinek daki hau?”. Hau da, zeinek esango du irakasleak entzun nahi duen hori? Fase hori gaitzen denean—eta gaitzen egin behar dugu—, bai helduok eta bai haurrek aurrera egingo dugu. Umeek gaitasun handiak dituzte.

Kontua da guk proposatzen ditugun gauzak proposamenak direla, eta denon artean aukeratuko dugu hortik zer egin eta zerez. Bada beste baldintza bat ere: guk egingo dugu, eta, beraz, ezin dugu *Disneyland* bat egin. Udalak diru apur bat jar dezake, baliabideak utz ditzake..., baina guk egin behar dugu, eta herritar guztientzat izan behar da, ume, heldu, denontzat... Guk, horren aurrean, proposaturiko proiektu hori egingo dela ziurtatuko diegu, eta ahalik eta lasterren egingo dela, ez lau urte barru. Erabakiak errespetatu egingo dira, erabakiguneetan umeak egongo dira, eta parte hartuko dute. Helduok lagundu egingo diegu, eskua gehiegi sartu gabe. Hezitzailea izan behar du, eta ez da onartuko inor gutxietsiko den proposamenik...

Gaur egungo bizi ereduaren kontuan izanik, haurren parte-hartze eredu horrek iraultza txiki bat ekarriko luke...

Helburua, neurri batean, horixe da. Eta, normalean, gurera etortzen diren gurasoek kezka handi bat daukate. Batetik, hizkuntzarena; leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago. Beste kezka bat hauxe da: ume horiei bestelako aisialdi eredu bat proposatu nahi zaie, eta gu, gainera, guraso garen heinean, prest gaude lanerako. Hau ez da ludoteka-zerbitzu bat, non haurrak utzi eta gurasoak badoazen. Badago umeei beste mundu bat eskaintzeko borondatea. Jakinda ez dugula mundua aldatzerik lortuko, gure auzoan egin nahi dugu aldaketa, gure txikian, guk erabakita, eta guk auzolanean eginga.

Euskararen garapenari galga jarri

zaio, ez dugu aurrera egiten erabileran; ez ote da mundu eredu hau euskararen normalizazioari galga jartzen diona? Mundu hegemoniko honek, hizkuntza bakarrak, botere bakarrak, izateko modu bakarrak —alde guztietatik, sozialki, genero aldetik...— ez ote dio galga jartzen euskarari, feminismoari, integrazioari edo berdintasunari jartzen dion bezalaxe? Mundua aldatu behar du guk euskara normalizatzeko, edota alda dezagun mundua euskara normalizatu; edo, bederen, saia gaitzen gure eremuetan aldatzen. Horregatik, euskararen normalizazioak bide bat hartu behar du; gainerako menpekotasun guztien erronka bera izan behar du. Euskararen normalizazio horrek feminista izan behar duela uste dut, eta, aldi berean, uste dut, feminismoak euskararen bidea hartu behar duela.

Nola erantzuten diozue inklusibotasunaren erronkari euskaratik?

Gu geu inklusiboak izanda. Guztiontzat balio dezakeen begirada izanda. Eta, normalean, umeek badute begirada hori, zeren, ume batentzat eskailerak igotzea zaila bada, esan nahi du jende askorentzat izan daitekeela zaila. Haurrek badute sentsibilitate hori, txiki izate hutsak ematen dielako. Inklusibotasuna proiektuak berak du, eta umeen euren begiradak dauka. Udal batek ere izan behar du; ertzetan dauden guztiak biltzeko aukera eman behar du, edo, bederen, horientzat guztientzat ona izango den zerbait proposatzeko obligazioa dauka.

Euskara inklusiboa da. Euskalduna euskaraz dakiena da, hau da, hizkuntza jakitea nahikoa da horra sartzeko; areago, hizkuntza jakin gabe ere, guk besokak zabalik dauzkagu. Gurea ez da harreri bat, harrera egiteko leku bat izan nahi baitu. Edozeinek ateak irekita dituen bezala, euskarak ateak irekita izan behar ditu. Euskarari atea ixtea, kasu batzuetan, emakume bati edo etorkin bati atea ixtea bezala ikusten dugu. Gure oxigenoa da euskara. Beste hizkuntza batzuetako jendea ere egon dadin jarriko ditugu bideak, baina ez dugu hizkuntza-ordezkapenik egingo.

Oarsoaldeko proiektua ez da bere horretan hartu eta beste herri batean aplikagarria, tokian tokiko errealitatea aintzat hartu behar baitu. Baina izango ditu oinarri batzuk, beste herri batzuetan eta ikastetxeetan aplika daitezkeenak. Zein dira umeen parte-hartzea eta euskararen biziberritzea bultzatzen lagunduko luketen oinarri horiek?

Gure ustez, batera doaz euskararen biziberritzea eta umeen parte-hartzea, edo, bederen, joan daitezke. Eman umei hitza, benetan eman, errespetatu eta ireki bide bat non hor erabakiko diren gauzak.

Hezkuntza-sisteman, adibidez, jarri gune batzuk horretarako, eta gune horiek izan daitezela euskaraz, bere logika ideologikoa duelako, senidetuta dauden bi borroka izan daitezkeelako (beste borroka asko bezala). Gure esperientzia hori da: umei benetako boterea ematen diozunean eta botere hori txikia denean ere —gela bat, aulki bat, mahai bat aldatzeko aukera...—, erantzun egiten du.

Francesco Tonucciren hitzak ekarriko ditugu gogora. Hauxe galdetu zioten behin: “Nola ikusten duzu zuk jolas-orduen kontua, irakasleok antolatu behar genuke, ala haurrak libre utzi behar genuke?” Hark gutxi-asko erantzun zuen: “Fuera jolas-ordua, ikaskuntza-prozesuak berak jolas bat izan behar du”. Jolasaren ideia hori ekarriko dugu euskarara, baita helduontzat ere, gustukoa den horrek laguntzen baitu hizkuntzari gozagarritasuna ematen.

Badakit, ordea, hezkuntza-sistema antolaturik dagoen bezala oso zaila dela tarte horiek eraikitzea, eta jolas-ordua kentzea, adibidez. Errespetu osoa diet irakasleei eta hezkuntza-sistemari; muga handiak dituzte, eta eskaera handiak egiten dizkiogu gizartetik, gurasoek, bereziki. Uste dut ezin diola horri erantzun estamentu bakarrak. Gure proiektuetan, irakasleak, ikastolako zuzendariak, gurasoak, hezitzaileak... daude; guztion baturatik atera daitezke gauzak, eta zabaldu daitezke gune batzuk. Askotarikoak eta pluralak izango gara, euskaratik hasten baldin bagara.



0-3. Hezitzaileen formazioa

Formazio pertsonala

“Geure burua behatzen dugu eta norbere sentipenak identifikatzen ditugu, hala gero haurra hobeto ezagutzeko”

0-3 zikloan diharduten profesionalei bideratutako formazio pertsonaleko eskola eman zien Alvaro Beñaran psikomotrizistak hezitzaileentzako formazioa egiten ari diren ikasleei. Azaroaren 15etik 17ra arte, asteburu osoa hartu zuen saioak eta bertan, besteak beste, norbere barneko sentimendu eta sentsazioak identifikatzen ikasi zuten, gero hala haurrarenak ere hobeto identifikatu ahal izateko eta norbere bizipenak era negatiboan umearengan ez proiektatzeko. Beñaranek saioa hasi aurretik argitu bezala, formazio pertsonalaren xedea ez da metodologia bat irakastea edo psikomotritate ematea, norbere barnerako baliagarria izango den formazioa eskaintzea baizik, “formazioa prozesu bat izango da eta norberak egingo du bere bidea”. Aldi berean, formazio pertsonalarekin 0-3 zikloko hezitzaileentzako formazio osoari lotura eman nahi izan dio irakasleak, berak lantzen duen zerikusia baitu beste mintegietan emandakoarekin, baina baita hezitzaileek euren



egunerokoan egiten duten lanarekin ere.

Haur txikiekin lanean ari diren profesionalak haurra behatzen, aztertzen, ezagutzen saiatu ohi dira: haurra nola ari den garatzen, bizitzaren hasiera nolakoa izan duen, harremanak nola egiten dituen... Profesionalak haurraren jartzen duten begirada hori euren buruarengan jartzen dute formazio pertsonalean: “Lehenik geure buruarengana jotzen dugu, hain zuzen, gero hobeto begiratzeko haurra. Geure burua behatzen eta aztertzen dugu eta geure sentipenak identifikatzen di-

tugu, hala gero geurea zer den eta haurrarena zer den bereizi ahal izateko. 0-3 adin tartean emozio eta sentipen asko nahasten dira, baina zergatik? Bizitzaren sustraietan gaudelako. Ez bakarrik haurraren bizitzaren sustraietan, baita gure bizitzaren sustraietan ere”.

Psikomotrizistak azaldutako moduan, haur txikia oinarrizko bi eraikuntzaren gainean osatzen da: “Ni naiz” eta “Ni bestelakoa naiz zurekiko”. Lehen urtean, batez ere, inguru egonkor eta konfiantzazko baten beharra du. Lehen urtetik hiru urtera bitartean, inguruaren egonkortasuna eta fidagarritasuna beharrezkoak izaten dira oraindik, baina dagoeneko prest dago gutxieneko presentzia-absentzia dinamika batean sartzeko. Dinamika horrek ahalbidetuko du haurra irekitzea, segurtasunean, bereizketa, individualizazio eta autonomiarako bidean: “Haur txikiaren pertsonaren eraikuntza hori laguntzea, ez da erraza. Hezitzailearen beraren historiari galdegiten dio, haren nortasunaren eraikuntzarekiko eta be-

reizketa eta indibiduazio prozesuekiko esperientzia propioari. Hori ezin da 'irakatsi', ezta 'ikasi' ere". Eta adibide bat jartzen du Beñaranek: "Pertsona batek oso argi izan dezake atxikimenduaren eta bereizketa eta indibiduazio prozesuen teoria, baina horrek ez du esan nahi haur txikiak prozesu horietan laguntzeko gai izango denik".

Hurrekin egoteko eta haien heziera eta heltze prozesuetan laguntzeko gaitasuna hezitzailearen egitura afektibo eta harremanetarakoekin lotuta dago, irakaslearen esanetan, hau da, lehen haurtzaroaren historia propioarekin, eta hezitzaileak bera zaintzeaz arduratu zen ingurune horretan izandako bizipenekin: "Hezitzailea 'ingurune zaintzaile' horren partaide da orain, baina aurretik 'ingurune batek zainduta' egon da. Nik ez badut, nire bizitzaren hastapenetan, ingurune atsegin, adeitsu, enpatiko baten zaintza eta sostengu egokia jaso, zaila izango da nire buruarekiko konfiantzazko eta segurtasunezko oinarri bat izatea, eta ondorioz, arazoak izango ditut haur txikien sentimendu, behar eta bizipenekin enpatia sortzeko lantokian".

Hori guztia, ordea, ezin da liburuetatik ikasi, ezta buruz ere. Beraz, nola landu alderdi hori? Beñaranek badu erantzuna: formazio pertsonalaren bidez. Lan modu horrek norbere sentsazioetara, pertzepzioetara eta kontzientzia-hartzera gertatzeko ibilbidea proposatzen dio hezitzaileari, bizipen-egoeren sorreran oinarriturik: norbere gorputzaren gaineko lanketatik hasi, espazioarekin, objektuekin eta bestearekin/besteekin topo egin, mugimenduaren, erlaxazioaren, jolasaren eta sinbolizazio-maila ezberdinen bidez (idaztea, sentitutakoari eta bizitakoari hitza jarri, marraztu, sormen plastikoa jorratu...), harik eta bizita-

koari argia ematen dioten eta ahalmen profesionalerako formazio-mota honen baliagarritasuna zehazten duten kontzeptualizazioekin bat egin arte. "Nire iritziz, 0-3 etapako hezitzaileek (baita 3-6 etapakoek ere) beharrezkoa dute mota honetako formazioa, zeren eta norberak ez badin badu bere gaitasun, muga, plazer eta desplazeraren gutxieneko kontzientziarik izaten, nekez bereizi ahal izango da zer den haur txikiaren berezkoa eta zer den lehen haurtzarorarekiko harremanean sortzen diren emozioen eta mota guztietako bizipenen zurrunbiloaren berezkoa".

Egiaztatu ahal izan dute haur txikiarekiko ikuspegia eta ulermena erabat aldatzen direla formazio pertsonala bizi duten pertsonengan, jabetzen baitira lehen urte horiek haurren bizitzan duten garrantziaz, kontu horien guztien oihartzuna norbere barruan entzuten baitute formazioan egiten diren lan proposamenetan, eta modu askoz sakon eta argi goan barneratzen dituzte kontzeptu teorikoak, haurrarekiko praktikaren eta teoriaren esanahia atziz: "0-3 urteko hurrekin lan egiten dugunean pertsonaren oinarriak ukitzen ari gara, eta horrek oihartzuna du gure oinarri propioetan, eta eragiten du, neurri handi ba-

tean, haiekin harremanetan jartzeko orduan, eta gure pedagogia haien beharretara egokitzeko gure gaitasunetan". Psikomotrizistaren iritziz, hezitzaileek haurrengan euren beldurak eta segurtasun-eza proiektatzeko arriskua saihestu behar dute, norbere burua erdigunetik ahalik eta gehien atera, haur bakoitzarengandik benetan datorrena entzun ahal izateko, eta kalitatezko lan prebentiboa eta hezitzailea egin ahal izateko.

Hezitzaileen lanean koherenteziak duen garrantzia behin eta berriaz azpimarratzen du Beñaranek. Bere esanetan, profesionalak euren lana bizitzako parte dela sentitu behar dute, askotan gertatzen baita pertsona bera eskolan eta bizitza errealean diferentea izatea: "Badakit askotan ez dela erraza, baina iruditzen zait bizi errealean eta lanean koherenteak izaten saiatu behar dugula, gainontzean badirudi eskolan egiten duguna gauza bat dela eta bizitza erreala beste bat. Kasu horretan umeei ikusiko dute eskolan jasotzen dutena eta benetako bizitza ez datozela bat. Ezin duguna da hurrekiko enpatia, disponibilitatea, afektua eta antzeko jokaerak landu, eta gero lankideen artean edota gurasoekiko harremanetan balio horiek guztiak albo batera utzi".



Formazio pertsonalean kontuan hartzen diren hainbat ardatz:

- Norbere burua hobeto entzutea, umea hobeto entzun ahal izateko: norbere bizipenen eta umearen bizipenen artean bereizteari egiten dio erreferentzia, eta aldi berean, enpatiarako gaitasunari. Adibide bat jartzen du Beñaranek: "Imajinatu haur batzuk jolasean ari direla, beste bat haiengana doala jolastu nahian, baina ez diotela uzten; eta nik segituan, pentsatuz ume hori oso gaizki ariko dela pasatzen, esku hartzen dudala. Akaso pentsatu beharko nuke benetan ume hori hain gaizki ari ote den pasatzen edo nik bizi ote dudan oso gaizki gaitzespena eta horregatik hartu ote dudan esku. Argitzen saiatu behar dugu zein den haurraren beharra eta zein nirea".

- 'Nahiko ona den bestea', Winnicott-en kontzeptua: bizitzaren

hasieran haurrak dituen hiru jarretari buruz ari da; haurra nola sostengatzen den bai fisikoki eta bai emozionalki, nola manipulatu den eta objektuak nola aurkezten zaizkion. Formazio pertsonalaren bitartez, jokaera horiek hezitzaileek eurek bizitzen dituzte.

- Umearen bizipenetara hurbildu, eta bide batez, baita norbere bizipenetara ere: Beñaranen hitzetan, kognitiboki ia ezinezkoa da bizipen horietara hurbiltzea, beraz, garrantzitsua da norbere baitako bizipenak eta sentipenak identifikatzea, gero sentsazio hori bera haurraren gan behatzean errazago identifikatzeko.

- Elkarrizketa toniko emozionalen murgildu: komunikazio ez ahozkoari egiten zaio erreferentzia. Izan ere, formazio pertsonalean



mugimenduen bitartez eta gorputzaren bidez lan asko egiten da.

- Jolasteko gaitasunari eutsi: formazio pertsonalak jolasari garrantzia itzela ematen dio eta beraz horretarako aukerak zabaltzen dira saioan, oso garrantzitsutzat jotzen baitu Beñaranek hezitzaileak jolasari irekiak egotea.

Herri hezitzailea, **eskola herritarra**



Liburu-monografikoa

Txatxilipurdi elkarteak Francesco Tonucciren "Haurren hiria" liburua euskaratu ondoren; orain, "**Herri hezitzailea, eskola herritarra**" monografikoa argitaratu berri du Hik Hasi, Euskal Herriko esperientziez osatuta.

-Prezio arrunta: 15 euro

-Hik Hasi, Hazi Hezi edota Irria aldizkarien harpidedunek: 10 euro.


-Prezio bereziak Durangoko Azokan.

www.hikhasi.com

EGUBERRIETAN OPARITU IRRIA ALDIZKARIAREN HARPIDETZA, ETA AUKERATU BI HAUEN ARTEAN:

ESKAINTZA ABENDUAK 31 BITARTE

SENTITU. PENTSATU. EGIN! DVD-A



45€
URTEAN

HARPIDETU ZAITEZ ABANTAILA HAUEKIN!

- ✓ URTEAN 10 AIE. ZURE ETXEKO POSTONTZIAN
- ✓ DESKONTUA TERAINGO IRRIEN LAGUNAK ATERPETEAN
- ✓ BAZKIDEENTZAKO TOZKETA BEREZIAK

- ✓ KLUBEKO BAZKIDE TXARTELA ETA PULTSERA
- ✓ IRRIEN LAGUNAK PRODUKTUETAN DESKONTUAK ELKAR DENDETAN ETA WEBGUNEAN
- ✓ KLUBEKO 'IRRIKITA' BAZKIDEENTZAKO KATALOGOA

Berrikuntza: oinarriak sendotuz

Gaurko eta etorkizuneko erronkei erantzuteko euskal curriculuma indartzea, irakasleak ongi prestatzea eta haur kritiko eta sortzaileak heztea dira giltzarrietarik hiru. 'Hezkuntza Euskal Herrian atzo eta gaur' jardunaldietan hiru oinarri horiei buruz mintzatu dira Paulo Iztueta, Miren Camison, Agurtzane Azpeitia eta Matilde Sainz, hik hasi-k antolaturiko tailerrean

GARAIAN ikerketa taldeak antolatuta, azaroaren 14an eta 15ean Donostiako "Hezkuntza Euskal Herrian atzo eta gaur" jardunaldiak egin ziren, EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultateko areto nagusian, eta jardunaldien barruan Hezkuntzak arduratzen gaitu tailerra egin zen, hik hasi-k antolaturik. Bertan, bizi ditugun hezkuntza-garai konplexu eta erronkaz beteriko hauetan, hik hasi-ren aburuz, euskal hezkuntzaren kalitatea bermatzen duten oinarri buruzko esposizioa egin zuten Paulo Iztuetak, Miren Camisonek eta Agurtzane Azpeitia eta Matilde Sainzek. Euskal curriculuma; pentsamendu kritiko eta sortzailea eta hirugarrenik, irakasleen prestakuntza izan zituzten hizpide hurrenez hurren Iztuetak, Camisonek eta Huheziko Azpeitiak eta Sainzek. Hiru zutabe horiek baitira, hik hasi-ren iritziz gaurko eta biharko hezkuntzaren oinarriak, guztia komunitate ikuspegi baten barruan landurik.

Paulo IZTUETA
EHUKO SOZIOLOGOA

Euskal curriculuma

Paulo Iztueta EHUko Filosofia sailko irakasleak hezkuntzaren izaera politikoa nabarmenduz hasi zuen be-



re hitzaldia. "Gaur egungo edozein estatuk hezkuntza-sistema erabiltzen du bere gizarte-eredua gauzatzeko orduan. Gobernuan aldaketak ematen diren bakoitzean, ohikoa izaten da hezkuntzan berrikuntzak egitea. Horren arrazoia da bortxa sinbolikoaren besoa bortxa fisikoarena baino askoz harago joaten dela gizarte-ordenaren kontrolean. Batez ere hezkuntza formalaren bidez gauzatzen baita, eta egun inoiz baino gehiago hezkuntza ez formalaren bidez, zehazki, komunikabideen bidez. Horrela, aldian aldiko gobernu zentralak, berak aldarrikatzen duen gizarte-ereduari eusteko, belaunaldi berriak balio horietan hezteko bide eragin-korrakorik ez du". Wertzen lege proiektu

jari zuen esandakoaren adibidetzat.

Curriculumaren garrantziaz hitz egiteko garaian, irakaskuntzaren hizkuntzari ere erreparatu behar zaiola dio Iztuetak. Eta horretarako datu esanguratsuei begiratu zien, "eta horiek ez dira kontsolagarriak". EAEn batxilergoa amaitzen dutenetatik %44k A ereduaren egiten du, eta D ereduaren % 53,7k. "Datu horiek are okerragoak dira Nafarroako Foru Komunitatean eta Iparraldean". Iztuetaren arabera, euskal lurralde barruko zatiketa administraboak eragiten dituen "ondorio txarrak" gainditzeko proposamen zehatzik ez da egiten klase politikoaren eta instituzio politikoaren aldetik, "eta etorkizunean norabidez aldatzeko zailtasunak baino ez dira

aurreikusten”. Esparru legala hori izanik ere, Iztuetaren iritziz, merezikoluke esparru murriztu horren barruan “euskarazko irakaskuntzaren alde ahalegin gehiago egitea 3 administrazioen arteko hezkuntza hitzarmenak bideratuz, edo beste zerbaiz asmatuz”.

Irakaskuntzaren hizkuntzari dagokionez, Iztuetak ez luke “euskarren ezagutza osoa ziurtatuko ez duen eleaniztasunik ez onartuko”, edo positiboan esanda, “eleaniztasuna euskarazko irakaskuntzaren bidez bermatuko da” gisako formulazioa onartuko luke. Haatik, Eusko Jaurlaritzak 2013ko iraileko datarekin prestatu duen ‘Oinarrizko hezkuntzarako euskal curriculumaren eredu pedagogikoaren markoa gauzatzeko plangintzaren hastapena’ izenekoan, metodologiaz ari delarik, euskaran ardazturiko norabidea formula eskaintzen da, eta hori ez da aski Iztuetarentzat. “Egungo hezkuntza eleaniztasunaren kasuan kontraesan garbi bat dago: ikasleen ia erdia gaztelaniaz eskolatzen den eredu pedagogikoan, eleaniztasunari ematen zaio sarri, kasu honetan ingelesari; bestalde, gauza jakina da albo hizkuntzan gaztelania eta frantsesa gure kasuan, gizartean bertan ikasten direla, arago oraindik, beren ama hizkuntza direnean. Euskarazko irakaskuntza ziurtatua dagoen kasuan, orduan bai desiragarri litzateke aberasgarri delako beste hizkuntza bat ikastea. Baina nire ustez, hautaketa ez litzateke egin behar interes ekonomikoengatik soilik, orain bezala, baita eta bereziki kultura horrengatik ere”.

Curriculumak unibertsala izan dadin, bere oinarrian partikularra izan behar du ezinbestean Iztuetaren hitzetan. “Herrietako hezkuntza komunitateetan aurkitzen dira partikularitasun ezaugarriak dauzkaten elementu

mota desberdinak: linguistikoak, kulturalak, historikoak, geografikoak, ekonomikoak etab. Espezifikotasunak areagoko zehaztasun bat ematen dio partikularitasunari. Beraz, euskal curriculumaren barruan, eremu unibertsalean sartzen diren eduki mota oro sartzen dira, gizarte eta giza zientzietan zein tekniko-zientifikoetan sailkatu ohi ditugunak.

Etorkizunari begira jarrita, eta Gernikako Estatutuak “emateko zue-na jadanik emana duela ikusirik eta EA Erako baino ez denez, Iztuetaren iritziz, “hezkuntza politika estatu independente batera hurbildu edo eraman gaitzakeen testuinguru juridiko posible baten aurrean kokatu behar litzateke”. Helburu hauek aurrera eramateko, hezkuntza elebidunean oinarritzen diren eta oraindik ere indarrean dauden marko juridiko autonomikoak gaintuz, irakaslearen aburuz, “egoera instituzional eta politiko berria eraiki beharra legoke bere zentzu oso eta betean, estatu independente batean bakarrik izango lukeena”.

Agurtzane AZPEITIA eta Matilde SAINZ

HUHEZI, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEAK

Irakasleen prestakuntza

Gaur eguneko eta etorkizuneko ikasleei erantzun ahal izateko, haien beharrak ase ahal izateko, irakasleek ondo prestatuak egon behar dute, eta horretan burubelari ari dira Huheziko Agurtzane Azpeitia eta Matilde Sainz. Gaur egun irakaslegaiak -eta formazio iraunkorra jasotzen duten irakasleak- ikuspegi gogoetatsutik formatzen dituzte, teoriaren eta praktikaren artean dagoen “amildegia” gaintzeko modu eraginorrena deritzote. “Garai batean erreferentzia teo-

ria zen, eta ondoren teoriatik praktikara transferentzia egiten zen, hau da, teoria hori aplikatzen zen —azaldu zuten Sainzek—. Gero ikusi zen hori ez zela batere eraginkorra, eta bigarren saiakera izan zen materiala sortzea eta material hori gelara eramatea, didaktikaren magiaren bidez. Baina horrek ere ez du erantzun oso ona eman, irakasle bakoitzak material hori bere modura erabiltzen baitu. Hirugarren bidea izan da, gela barruan zer gertatzen den aztertzea, arreta irakasleengan jarrita”. Ikuspuntu honetatik begiratuz ari dira orain lanean Huhezin.

Donald Shönnek 1983an mahaigaineratu zuen praktika gogoetatsuen kontzeptua. Lan horrek, Sainzen aburuz, “didaktikari eta irakaslearen formazioari eta prestigioari sekulako biraketa eman zion, kuasi paradigmatico”. Shönnek azaldu zuen irakaslea ez dela teoriaren aplikatzaile hutsa, baizik eta erabakiak hartu behar dituela, gogoeta egin behar duela.

Huhezikoek gogoeta hori auto-konfrontazioaren teoriaren bidez egiten dute. Hau da, irakaslea klasea ematen ari dela grabatu egiten da, eta ondoren, pertsona horrek tutore batekin —edo berdinkide batekin eta tutorearekin— gogoeta egiten du bere jardueraren gainean. “Hori egiteak aukera ematen du, ulertzeko pertsona horrek zergatik jotzen duen modu horretara, eta bere jardueraren gainean hausnartzen eta eraikitzen jarraitzeko aukera du”.

Miren CAMISON

HAUR FILOSOFIAKO IRAKASLEA

Pentsamendu kritikoa eta sortzailea

XXI. mende honen konplexutasunari erantzuteko, egunean egunean hezkuntzak dituen erronkei aurre

egiteko, beharrezkoa da Miren Camisonen aburuz jendarte kritikoa eta hausnarkorra heztea, “bere kabuz pentsatuko duena, arduratsua izango dena”. Autonomia intelektuala —eta baita autonomia morala, emozionala eta afektiboa— lantzeko haur filoso-fiaren proiektua proposatzen du Camisonek. “Gaur egun haurrek eskole-tan pentsamendu kritikoa eta sortzai-lea gara dezaten bermatzen al dira baldintzak? Hausnarketa eta sormena modu etiko batean lantzeko espazio-ak sortu behar dira”.

Pedagogia dialogikoarekin zerikusia duten 70eko hamarkadako bi proposamen aipatu zituen Camisonek, Paulo Freireren Zapalduaren pedagogia eta Matthew Lipmanen haur filosofiako curriculum. “Hezkuntza bankarioa” alboratzeko proposame-na egin zuen Freirek, non bere hitzetan, batek, dakienak, ez dakienari botatzen dion diskurtsoa. “Hezkuntza kontzientizatzailea” indartu behar dela zioen Freirek, Camisonek gogoratu zuenez. Pentsamendu kritikoa-rekin, sortzailearekin eta herri mugimenduarekin zerikusia dauka Freire-ren proposamenak.

Lipmanen Haur filosofiak haurrek eta gazteek euren kabuz pentsatzea

du helburu, “berez hala egiten dutebaina aukera gehiago ematen badizkiegu, hobeto trebatu daitezke”, azaldu zuen Camisonek. “Pentsatzeko daukaten gaitasun horri espazio eta aukera gehiago ematea proposatu zuen Lipmanek, metodologia filosofikoaren bitartez”. Borobilean eseri eta elkarrekin pentsatzen da metodo-logia filosofikoaren laguntzarekin, ikerketa, elkarrizketa eta komunikazio enpatikoaren bidez.

Gelak ikerketa komunitate filosofiko bihurtzea proposatu zuen Lipmanek, non haurrek elkarrekin iker-tuko duten interesa duten gaiei buruz. Horretarako elkarrizketa eta ikas-keta komunitate bat sortzea proposatu zuen.

Elkarrizketa filosofikoaren helburua, Camisonek azaldu zuenez, ez da bestea konbentzitzea, eta bata ez da besteari arrazoa inosatzten saiatzen. “Taldean egiten dugun eta egiten du-dan gogoeta pertsonal bat da, gogoe-tarako espazio bat da, etsaitasunik ga-beko konfiantzazko eta errespetuzko espazio bat”. Elkarrekin solasten du-gunean, ideiak eta gogoetak parteka-tzen ditugunean, nahiz eta ez egon beti ados, esanahi partekatua eraiki-tzen dela dio hizlariak, elkarrekin ho-

beto pentsatzen baita. “Descartesek esaten zuen ‘nik hobeto pentsatzen dut bakarrik,’ baina Vigotskyri esker badakigu hobeto pentsatzen dugula bestearekin. Besteak badu ikuspuntu bat guk ez duguna, eta erronka bat da beste ikuspuntu hori barneratzea eta gurea azaltzea; horrek sakonago pen-tsa dezagun eragingo du; besteak, gu-retzako, erronkak intelektuala dira”.

Irakaslea eta ikasleak elkarrekin lan egiten dute Camisonek proposa-tzen duen ikerketa komunitate horre-tan, eta biak dira ikerketaren subjektu aktiboak. “Irakaslea ez da bitartekari bat (ez baita eztabaida bat), baizik eta irakasleak prozesuak erraztu behar li-tuzke umeen eta gazteen intereseta-tik abiatuz, baina iritzi propiorik eman gabe”. Haurren sormena eta kritikotasuna landu eta garatu ahal izateko, irakasleek pentsarazteko galderak egitea da giltzarria, “Sokrate txiki bat bezala. Trebatu behar dugu, beraz, galdera ziztagarriak egiten. Beraz, hezkuntza bankariotik hona irakaslearen rola nahikotxo aldatzen da”. Galderaren pedagogiarekin ba-tera, entzutearen pedagogia gorai-patu zuen haur filosofiako irakasleak: “ez badugu elkar entzuten ez dago komunikaziorik”.

Duela bi urte agortutako CDa berrargitaratua

- Bidaietako jolasak
- Zotz egitekoak
- Zabuan kantatzekoak
- Txalotako jolasak
- Soka saltoan aritzekoak
- Txikientzako jolasak
- Korroan aritzekoak
- Gomatakoak
- Behatzen jokoak
- Taldean aritzeko jolasak
- ...

www.hikhasi.com



Baina mutilek pixa eserita egin dezakete?

Maskulinitateaz gogoeta bat



Amelia BARQUIN
HUHEZI, MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Lehenengo galderak

Hezitzaile gehienoi egokitu zaigu ume txikiei komunera laguntzea, eta behin eta berriro ikusi dugu neskek eserita egiten ikasi dutela eta mutilek, berriz, zutik. Mutilek, distantzia laburretik eta punteria onez isuri arren, mila mikrotanta txiki bidaltzen dituzte ontziaren puntu guztietara, baita bonbaren ura heltzen ez den lekuetara ere. Irakasleok disgustua hartzen dugu maiz, gero jokaera horrek emango digun lanaren aurrean.

Baina ez da soilik umeek etxetik ekartzen duten zer bait; maisu-maisura ugarik (gehienek?) eserita/zutik dikotomian irakasten diete pixa egiten haien ikasleei.

Zergatik? Zertarako? Harridura-aurpegiak agertzen dira maiz galderahorien aurrean, hainbat irakasleri lehenengo aldiz planteatuko balitzaizkie bezala. Batzuek, berriz, egin izan dute topo gaiarekin, eta esperientzia interesgarriak partekatzen dituzte. Besteak beste, mutil txiki batzuen erresistentzia gaindiezina pixa eserita egiteko, eta baita ama batzuen protestak ere jakin dutenean haien seme txikiak eseri egiten direla eskolako komunean.

Komun publikoak generoa erakitzeke gailuak dira

Komun publikoak eta etxeko komunak ez dira berdinak. Beatriz Preciado filosofoak komun publikoen inguruan duela urte batzuk egin zuen analisisian, ederto azaldu zuen gorpuzaren zaborra kudeatzeko espazioak izateaz gain, generoa zelatatzeke kabinak ere badirela:

Komun bakoitzaren atean, zeinu bakar moduan, genero interpelazio bat: maskulinoa ala femeninoa, an-

dreak ala jaunak, kapela ala pamela, bibotea edo loretxoa, komunera generoa berregitera sartu beharko bagenu bezala, gernuaz eta kakaz libratzera bainoago. [...]. Inporta duen bakarra GENEROA da.

Izan ere, Preciadok azaltzen duenez, emakumeen komunetan, adibidez, beste erabiltzaile batek adierazi ahal dizu –zure genero-seinaleak ebaluatuta, nahiko emakume itxura ez baduzu–lekuz erratu zarela eta dagokizun lekura bidali (poliziaren laguntzarekin, beharrezkoa baldin bada).

Komun publikoetan, emakumeek eserita egiten dituzte bi funtzioak, biak esparru pribatuan. Esparru publikoa ispiluarena da, non emakumeek generoa elkarrekin atontzen duten. Gizonen komunetan, berriz, bi funtzioak (genitala eta uzkiekoa) bananduta daude: pixa esparru publikoan egiten dute; kaka, aldiz, pribatuki, uzkiea begiradatik babestu behar dute eta.

Gizonen komun publikoak, bestalde, konplizitatea eta sexua esperimentatzeko lekuak ere izan dira eta badira, emakumeen komunak ez bezala, baina, Preciadorek ustez, pixa zutik egitea maskulinitate heterose-

¹ Beatriz Preciado (2006). "Basura y género. Mear/ Cagar. Masculino/ Femenino" www.hartza.com/basura.htm.

xualaren performance eraikitzaileen-
netarikoa da, genero sortzailea.
Ekintza kultural bat, non begirada
kolektiboa ezinbestekoa den gizon
moduan ezagutua izateko: “gizarte-
koitasun-lotura partekatuak sortzen
baititu, hori publikoki egitean, gizon
moduan ezagutzen direnen artean”.
Filosofoak dioenaren ildotik, “hon-
dakin organikoak kanporatzeko une
bakoitzak balio du generoa errepro-
duzitzeko abagune moduan”.

Ume transexualak eta komun erabilera

Aurrekoaren adibide argia da Coy
Mathisen kasua. Sei urteko ume esta-
tubatuar transexuala da, zakilarekin
jaioa eta bere burua neskatzat duena.
Noiz egin du jauzi gaiak komunika-
bideetara? Umearen eskolako zu-
zendariak neskentzako komunak
erabiltzen jarraitzea debekatu ondo-
ren, haren gurasoek gaia auzitegira
eraman dutenean, haien alabaren es-
kubideak urratzen ari zela ulertuta².

Andaluzian ere fiskaltzak erabaki
du ikertzea zein trataera jaso duten
hiru ume transexualek (sei, zortzi eta
bederatzi urtekoek) haien ikastetxe-
etan. Aztertzen ari da, hain zuzen, ea
ikastetxe horietan gurasoen eskaerei
jaramon egin dieten, alegia, umeak
haiek aukeratutako izenekin gelan
izendatuak izateko, haien identitate-
aren arabera arropa edo unifor-
mea janzteko eta identitate horrekin
lotutako komuna erabiltzeko³.

Komunaren erabilpen generiko-
ari garrantzi handia aitortzen diote
hezkuntza-komunitatearen partaide
guztiek, ikusten dugunez. Badago
hemen zer hausnartu: queer mugi-
menduak emakume/gizon binaris-
moa (alegia, bi generoen arteko di-
kotomia) arbuiatzen du, eta baita une
oro nor bere burua generikoki sail-
katzeko beharra ere. Argi dago, bai-
na, eskoletan komun berezituak

edukitzeak gaur egun sailkapen hori
egitea eskatzen duela.

Eta etxeko eta eskolako komunetan?

Publikoak ez diren komunetan,
esparru bakarra dago denontzat, eta
bi funtzioak egiteko lekuak ez daude
bereizita ez emakumeen ez gizo-
nen kasuan: etxe gehienetan eta es-
kola askotan ontzi bakarra dago pixa
eta kaka egiteko. Hala ere, pixatoki
publikoetan bezala egiten dute pixa
gizonek, nahiz eta etxean zakiletik
konkretara distantzia askoz handia-
goa izan. Etxeko komunetan pixa zu-
tik egiteak esan nahi du halaberrez
gizonek espazio hori zikinduko du-
tela, asko ala gutxi. Ez zait ahaztu
ikastaro batean ikusi nuen esperi-
mentu bat: ur botila txiki bat (zurru-
patzeko gailua zuena) urdinez tinda-
tutako urez betetzea eta, komun-on-
tzira zuzenduta, pubisaren altueratik
hustea. Ur urdinari esker, han geun-
den guztiok hauteman genuen ger-
nuaren kolore argiarekin zailagoa
dena: zipriztin txikiak noraino hel-
tzen ziren.

Eta, hala ere, jarraitzen dugu mutil
txikiei zutik egiten irakasten, komun
publikoetan egiten den bezala (ta-
bernan, museoan, akaso lanean...),
eta ez diegu irakasten komun arrun-
tetara egokitzen (etxekora, hain zu-
zen, non askoz gehiagotan egingo
duten, ziur aski).

Nondik erresistentzia? Maskulinitatearen gakoa

Nondik datoz mutil txiki batzuen
erresistentzia handia eta guraso ba-
tzuen protesta eserita egitearen ingu-
ruan? Maskulinitate hegemonikoare-
kin duen lotura nabarmena da. Eseri-
ta egitea emakumeen ezaugarria da,
eta “emakumeen gauzak” edo gau-
zak “emakumeen antzera” egiteak
prestigio galera ekartzen die gizonei
(estatus baxuagokoa delako gure gi-

zartean). Aldi berean, “maritxutze-
ko” arriskuarekin erlazionatzen du-
te: nahikoa gizon ez agertzearekin
eta gay izatearekin.

Badago, gainera, beste elementu
bat, argiki sumatzen dena, maskuli-
nitate konbentzionalaren imagina-
rioarekin lotua. Esertzea makurtzea
da, menperatua eta otzana izatea, on-
dorioei erreparatzea, arauetara ego-
kitzea, garbiketa kontuan izatea...
Zutik egitea harroa da, indartsua,
etxekotu gabea eta arduragabea izate-
a, arauen gainetik egotea, garbiketa
bartzertzea...; matxoa (edo “beti-
ko” matxoa) izatea, hain zuzen. Hori
guztia sumatzen da gizon batzuen
kexan, gaia sarean eztabaidatzen de-
nean: “Hori bakarrik falta zitzaigun.
Emakumeek dena nahi dute, are gi-
zonok bukaeraraino umiliatu eta gu-
re maskulinitatea erabat desagerrara-
zi”. Badirudi zutik egitea dela, hain
zuzen, gizotasunaren azkeneko go-
torlekua.

(Hemen azaldu behar dut ez du-
dala ezer harroa izatearen kontra;
norberak ikusiko du zer jarrera auke-
ratzen duen. Bai uste dut, berriz, bizi-
jarrerak eta komunetan pixa egiteko
moduak ez daukatela lotura zuzenik
edo ez dutela zertan izan).

Maskulinitate hegemonikoa ho-
rrelako erritoetan gorputzen da. Gu-
raso eta irakasle batzuk (baita amak
eta maistrak ere) maskulinitate ho-
rren zaindariak dira, hainbat (in)kon-
tzientzia mailatan, darabilgun arloan
beste arlo batzuetan bezalaxe. Ho-
rrela jarraitu ahal izango dute mutilek
zutik egiten, jokaera horrek zenbat
zikintzen duen arduratu gabe. Ez da-
go sobera gogoratzea, bestalde, ema-
kumeak direla oraindik gehienetan
zikinkeria hori garbitzen dutenak.

Emakumeek ere zutik egin dute

Naturala da generoen arteko des-
berdintasuna gaurko komunetan ba-

² Carolina García (2013). Una niña transexual de seis años gana una demanda civil en Colorado. El País, 2013-06-13.

³ Reyes Rincón (2013). La fiscalía investiga el trato dado en tres colegios a niños transexuales. El País, 2013-10-02.



liatzeko orduan? Barruko arropa erabiltzeko ohitura, behintzat, nahiko berria da klase baxuen artean. Jose Antonio Azpiazu historialariak Euskal Herrian garai bateko arroparen eta higienez inguruko usadioak azaltzen ditu, eta baita hamarkada gutxi batzuetan nola aldatu diren ere: “Orain dela 150-200 urteko kuleroak oso bitxiak ziren. Gerrian itxiak, eta aluaren parean irekiak [...] Txiza egiteko ez zuten kuleroa kentzen emakumeek. Gure amonek zutik egiten zuten txiza”.

Kulerorik gabe ibiltzea eta soroan edo kortan gonaren azpian hankak apur bat irekitzea pixa egiteko, hori nik neuk ikusi dut duela 30 urte Kantabrian bertan adineko emakumeen artean. Ez daukat erreferentziarik nola egiten duten oraindik nekazaritza tradizionala lantzen duten beste gizarte batzuetan, baina ez ninduke harrituko antzeko ohiturek irauteak.

Horrekin esan nahi dut, gaurko komunak sortu eta hedatu baino lehen, pixa egiteko moduak ez zirela gaur egunekoak. Gaurko ohiturak eraikuntza sozialak dira, gailuen eta esparruen diseinu jakin batzuei egokituak; ez dira beti horrelakoak izan,

eta, aurrerantzean ere, desberdinak izan daitezke.

Eta bai, komun-ontziaren barruan pixa eserita egiteko, mutil txikiek ikasketa-prozesu labur bat egin behar dute, zakila beherantz bideratzeko, adibidez. Baina neskek ere behar dute ikasketa-prozesu bat, ekintza ez da “naturalagoa” haien artean; izan ere, haiei ere irakatsi behar zaie ipurdia eta bagina ondo zentratuta jartzen, likidoa ez kanporatzeko.

Ipuin-liburu baten adibidea: “Nik eserita egiten dut. Eta zer?”

Europako herrialde batzuetan, Alemanian edo Eskandinavian, adibidez, gure artean baino hedatuago dago gizonen artean pixa eserita egiteko usadioa. Kanpaina batzuk abian jarri dituzte, gainera, erabilera hori leku publikoetan zabaltzeko, eta etxeko komunitatean ere oharrak jartzen dituzte etxekoei gogorarazteko eta bisitei mesedea eskatzeko.

Gure gizartean urrun gaude adibide horietatik. Gaia tratatzen duen ipuin-liburu bat aipatu nahi dut adibide moduan: Nik eserita egiten dut. Eta zer?, Arantza Iturberena (Donostia, 2001). Liburua “Eta zer?” sailekoa

da; sail horren protagonistek “ezohikoak” diren ezaugarriak dauzkate, eta gure gizartean aurrera ateratzen ikasten dute. Aniztasunaren aldeko saila dela esan dezakegu.

Istoria honako hau da: Josuk, protagonistak, eserita egiten du pixa; amak bezala eta ez aitak bezala, beraz. Izan ere, aitak “komunitate metro erdira, eta, normalean, erdia komunitate kanpo”, amaren disgusturako.

Eskolan konturatzen direnean, ia ume guztiek barre egiten diote Josuri nesken moduan egiteagatik, eta berak gaizki pasatzen du. Gurasoengandik ez du aholkurik jasotzen, baina amarengandik mezu anbibalente hau hartua zuen jada: “Josu, maitea, niri oso ondo iruditzen zait eserita egitea, baina ez al zenuke hobe aitak bezala egiten ikastea?”

Ipuinaren bukaeran, Josuk “konpromisozko” konponbidea aurkitu du: zutik egiten ikasi du, eta, berak dioenez, “eskolan edota jende gehiagoko dagoen tokietan bakarrik egiten dut zutik. Bakarrik nagoenean eta etxean, eserita egiten jarraitzen dut”.

Ipuina umearen honako hitz hauekin bukatzen da: “Nik, orain, aitak bezala egiten dut pixa eskolan, eta amak bezala etxean. Eta pentsatu, asko pentsatzen dut nik ere. Eserita hobeto pentsatzen da, gainera, eta, batez ere, gutxiago zikintzen da”.

Laburbilduz: umeak nahiago du eseri, eta arrazoi onak dauzka horretarako, baina erabaki du eskolan plantak egitea eta esparru publikoan mutil konbentzionalengandik espero den bezala jokatzeko. Non gelditzen da “eta zer?” kontua orduan? Non, “ezohiko” berezitasunaren defentsa? Horren handia al da presioa mutilen gainean, ezen protagonistak ezin baitu arau hori baztertu ezta fantasiaren munduan ere, sailaren formatuak horrela eskatu arren? Maskulinitate hegemonikoa, zelako zama.

Zer baliabide eskaintzen dituzte IKTek ikasleek elkarrekin lan egin dezaten



Azken urteotan, IKTek, bereziki Web 2.0 delakoak, aukera paregabeak eskaintzen dizkigute elkarlanean aritzeko. Dena dela, horiek lanabesak besterik ez dira, eta, beraz, horien erabilpen hutsak ez du besterik gabe elkarlana bermatzen. Lanabes horiek nola erabiltzen diren garrantzitsua izango da elkarlanerako.

Esan dezakegu blogak (www.blogger.com edota www.wordpress.com) eta wikiak (www.wikispaces.com edota www.mediawiki.org) izan direla elkarlanerako tresnarik erabilienak. Dena dela, gaur egun badira beste hamaika aplikazio edo zerbitzu ere, ikasleei eta irakasleoi elkarlanean aritzen lagunduko digutenak. Egunero programa berriak sortzen direla kontuan izanik, edota daudenak hobetzen dituztela jakinik, guztiak aipatzea ezinezkoa izango litzateke. Beraz, sailkapen bat eginez, gutxi batzuk aipatuko ditut:

1) Ofimatika, grafikoak eta fitxategiak:

- **GoogleDrive** (<https://drive.google.com>): Google-en zerbitzu hau 2012an sortu zen, eta sarean dokumentuak gordetzeko eta sinkroniza-



Nere AMENABAR

EHU-KO IRAKASLEA

tzeko erabiltzen da bereziki. Dokumentuak partekatzeaz gain, elkarlanean edita daitezke, hau da, hainbat erabiltzailearen artean egin daiteke. Erabiltzaile bakoitzak 15 GB gorde ditzake dohain, eta memoria hori handitu egin daiteke ordainduz gero.

Sarean bertan erabil daiteke, hau da, inolako instalaziorik egin gabe, edo aplikazioa norberaren ordenagailuan instala daiteke, eta automatikoki sinkronizatuko dira dokumentuak.

Gainera, egun hainbeste erabil-

tzen diren sakelako telefonoetan instalatzeko aplikazioak ere badaude (IOS edota Android-erako).

- **Dropbox** (<https://www.dropbox.com>): hau ere fitxategiak biltzeko zerbitzu bat da. Horren bitartez, erabiltzaileek dokumentuak jaso eta sinkronizatu egingo dituzte sarean, eta parteka ditzakete. Ez bakarrik fitxategiak, karpeta osoak ere parteka daitezke erabiltzaileekin. Bertsio batzuk doakoak dira, beste batzuk ordainekoak, eta bakoitzak bere zerbitzuak izango ditu. Hau ere sakelakoetan instala daiteke, bai Android-etan, BlackBerry edota IOS-etan (Apple). Biltegi hau oso erabilgarria da hainbat ordenagailutik ari garenean lanean, eta baita segurtasun-kopiaren bat beti sarean izateko ere. Komeni da segurtasun-kopien izenak argi izatea, bertsio zaharra eta berria ez nahasteko.

2) Diapositiben aurkezpenak:

- **Prezi** (<http://prezi.com>): aurkezpenak egiteko maiz erabiltzen da zerbitzu hau. Lortzen den emaitza erabat dinamikoa izateaz gain, oso erakargarria da, eta fitxategiak erraz

kudeatzen dira. Aurrez diseinaturiko txantilo batzuk erabil daitezke aurkezpenarako, edota hutsetik hasi eta norberak egin dezake diseinua.

Kasu honetan ere sarean egin daiteke lan zuzenean, edota aplikazio norberaren ekipoan instala daiteke (PC-an edota Mac-ean).

Partekatze hainbat modu daude. Alde batetik, esteka lortu eta guk nahi dugunarekin parteka dezakegu. Horrez gain, Facebooken bidez zuzenean gure horman ere jar dezakegu. Une batean geure ekipoan gordetzea ere interesatzen bazaigu, PDF moduan ere gordetzen du (agian aurrez aipaturiko dinamismo hori galduz) edota, interesatzen bazaigu, aurkezpen eramangarri bat gorde dezakegu.

Duela gutxi, beste hobekuntza bat ere egin dute: 10 pertsonak elkarrekin egin dezakete lan aurkezpen baten gainean (Meeting). URLa partekatuz egiten da hori, besterik gabe. Erabiltzaile bakoitzak bere pertsonaia (avatar) izango du, eta beste guztiek hori aldatzen ari den gunea ikusiko dute. Aldaketa horiek erabiltzaile guztiek denbora errealean ikusiko dituzte.

Meeting aukera hori doako bertsioak zein ordainekoak eskaintzen dute, baina aurkezpen horretan parte hartzen duten guztiek kontua izan behar dute Prezi-n. Hori da baldintza bakarra.

3) Markatzaile sozialak:

- Mr Wong (www.mister-wong.es/): lanabes honen bitartez, elkarlanean egiten ari garen lan bateko lehen fase hori arindu daiteke, hau da, gaiaren inguruko informazioa bilatzen ari gareneko fase hori. Taldeko kide bakoitzak gaiarekin zerikusia duten gustuko webguneak gordeko ditu, eta zerbitzu honen bidez beste kideekin partekatuko ditu. Era honetan, elkarrekin oinarritzko bibliografia bat osa dezakete.

Markatzaile horiek era pribatu zein publikoan gorde daitezke, eta, era berean, talde pribatu zein publikoak sor daitezke. Horrez gain, beste norbaiten orrialde gustukoena guregana ditzakegu haren lagun bihurtuta.

4) Giza sareak:

Azken urte hauetan izugarri hazi da giza sareen erabilera. Asko gara giza sare bat edo beste bat egunero erabiltzen dugunak. Esperientzia asko egin dira urrutiko hezkuntzan tresna horiek erabilia, eta elkarlanerako ere lanabes interesgarriak dira ikasleentzat. Gazteen kasuan, esaterako, oso ongi ezagutzen dituzten tresnak izanik, gustura aritzen dira haiekin elkarlanean. Giza sareen artean elkarlanerako bi aipatu beharko bagenu, Facebook eta Twitter izango lirateke.

- **Facebook** (<https://facebook.com>): erabiltzaile ugari dituen giza sarea dugu hau. Asko erabiltzen da, bereziki lagun zaharrak aurkitzeko eta haiekin harremanetan jarraitzeko. Dena dela, informazioa partekatze ere lanabes aproposa izan daiteke. Esaterako, Facebook-ek aukera paregabea eskaintzen digu gure orria sortzeko, hau da, taldearen web-orri bat (*Fan page*) izango litzatekeena.

- **Twitter** (<https://twitter.com>): **Twitter**, berriz, gizarte-sare eta *micro-blogging*-zerbitzu bat da. Zerbitzu horrekin, gehienez 140 karaktereko mezuak bidal ditzakete erabiltzaileek. Erabiltzaile ugari Twitterra, azken finean, kazetaritza parte-hartzaileerako da erabilgarria. Hainbat iturritako informazioa bilduz osa dezake norberak bere informazioa.

5) Bilerak egiteko:

- **Doodle.com** (<http://doodle.com>): maiz gertatzen da, elkarlanean aritzen garenean, taldekide guztiei ondo datorkien eguna eta ordua aukeratzeko ez dela batere erraza izaten. E-postaren bidez, bakoitzak libre dituen edota ez dituen ordu eta egunen zerrenda egin dezake. Baina, gero, idazkari edota koordinatzaileari dagokio guztion egutegia hartu eta denei ondo datorkien hitzordua jartzea. Doodle-k antolaketa hori dezente erraz dezake. Kide bakoitzak bere egutegia jarriko du taula batean, eta era simple batean ikusi ahal izango da taldekide denei edota ahalik eta gehienei ondo datorkien data. Gainera, beste egutegi batzuk ere, Google

Calendar (<https://www.google.com/calendar/>) esaterako, honekin sinkroniza daitezke.

- **Skype** (<http://www.skype.com>): Internet bidez deiak egitea ahalbidetzen duen programa hau ere asko erabiltzen da toki berean ez dauden pertsonen arteko bilerak egiteko. Deiak egiteaz gain, bat-bateko mezuak bidaltzeko, bideokonferentziak egiteko edota fitxategiak trukatzeko aukera ere ematen du aplikazioak. Doakoa da zerbitzu hau, betiere, erabiltzaile guztiek softwarea beraien ekipoetan instalatuta badute. Dena dela, Skype Out-en bitartez deiak telefono arruntetara edota mugikorretara egin daitezke, aurrez ordainduz gero. Deiak merkeak dira, baina, egin ahal izateko, Internet bidez minutu-kantitate bat erosi behar da, eta erabili ahal gaituz joango da.


6) Mapa mentalak eta elkarlanerako arbelak:

- **Corkboard** (<http://corkboard.me>): azken finean, maiz erabiltzen ditugun Post-it arrunten antzerakoa da, eta guk nahi ditugun kideekin era azkar eta erraz batean parteka daitezke. Horregatik, asko erabiltzen dira proiektu batean elkarlanean ari garenean. Sakelako telefonorako ere badago aplikazio bat.

- **Mind42** (<http://mind42.com/>): Mind42 mapak egiteko aplikazio erabilgarri honekin, norberak bereak egiteaz gain, era errazean parteka daitezke besteekin, denbora errealean lan eginez. Editore guztiek gaitasuna dute gai berriak txertatzeko mapan, edota dagoena sakontzeko.

Aipaturiko software horiek guztiek izena ematea eskatzen dute erabili ahal izateko. Zer esan nahi du horrek? Bada, erabiltzailea eta pasahitza aukeratu beharko ditugula bakoitzarentzat. Gomendio gisa, aurkitu pasahitzak gordetzeko gustukoena duzuen aplikazioa, eta gorde denak han. Horrek lana erraztu egingo digu.


argitalpenak



Zazpikoloroa
Igor Elortza / Julen Tokero

ELKAR

Irriaren Hirian daude Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Urtero bezala, Zazpikoloroaren Festa ospatzen ari dira Irriaren Hirian: mundua kolorez margotzen duen hegazti miragarriaren festa. Aspaldiko kondaira batek dio Patakon pirata dela Zazpikoloroaren zaindaria, hegazti koloretsuak ez baititu guztiak lagun. •



Animalitxoen ipuin klasikoak
Ilustrazioak: Javier Inaranjo

TTARTTALO

Hiru txerri txoak, Banbi, otsoa eta zazpi antxumeak... Ezagunak dira pertsonaia horiek, ezta? Eta baita haien istorioak ere, noski. Lau ipuin klasiko bildu, eta liburu batean jaso ditu Ttarttalo argitaletxeak. Hauek dira liburuko lau ipuinak: *Banbi*, *Otsoa eta zazpi antxumeak*, *Abate-txo itsusia* eta *Hiru txerri txoak*. •



Gerrak ez du izenik
Leire Bilbao / Maite Mutuberria

PAMIELA


1937ko martxoa da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil. Ez du hitz bakar bat ere egin, amama hil eta egun berean aita frontera joan zitzaionetik. Gertatzen dena ikusi nahi ezta neskatoa mututu dela uste dute, baina Mirentxuk gertatzen ari denetik haratago ikusten du. Lan honek album ilustratuen Etxepare saria jaso zuen. •



Hegazkinak

AIZKORRI

Lanbidez, herrixka bateko hegazkin fumigatzailea zen Dusty. Lanaz haratago, baina, bazuen amets bat: munduko hegazkinik bizkorrena izan nahi zuen! *Mundua inguratzen duten hegoak* izeneko lasterketa irabaztea zuen amets. Horretarako, ordea, arazo handi bat gainditu behar zuen: Dustyk beldur zien garaiera handiegi eta hori oztopo zen. •



Izotz zuloak

Olatz Bravo / Ainara Azpiazu

EREIN

Anaia txikia jaio dela eta, Marko pinguinoak nahiko arraro sentitzen du bere burua. Lukas ez da amestutako jolas-kide dibertigarria, hegoak mugitzen ez dakien umetxoa baizik. Egoera jasan ezinda, etxetik ihes egitea erabakiko du, oso urruti, galdu egin dela konturatu arte. •



Gabon, hontza!

Pat Hutchins

Itzulpena: Manu Lopez Gaseni

PAMIELA-KALANDRAKA

Hontzak lo egin nahi zuen, baina animalia ugari inguratzen zitzaizkion loa galaraztera: erleak, katagorria, beletak, zozoak, usoak, txolarreak... aurre-irakurleentzako eta lehen irakurleentzako albuma da. Egitura errepikakorra du eta hots nahiz onomatopeia ugari darabiltza. •

BEHIN OPARITU
11 ALDIZ JASO
URTE OSOAN GOZATZEKOA!

11 ALDIZKARI JASOKO DITU(ZU) ETXEAN.
MUSIKA, ZINEA, SEXUA, LITERATURA, INTERNET,
ARTE ESZENIKOAK, KIROLA, ARGAZKILARITZA...

HI ETA HIRE
20€
URTEAN
MUNDUAK



EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
ETA GUK ZURI ERE OPARI
SU TA GAR TALDEAREN
'BIZIRIK GAUDE'
DISKO BERRIA



gaztezulo^{em}
AL DIA HIRI MUNDUAK

Tel.: **943 457 250**
harpidetza@gaztezulo.com

hik hasi-ren proposamena

IMANOL URBIETA

Disko bat, hamalau omenaldi txiki

Imanol Urbietaren omenezko diskoa egin dute Euskal Herriko 14 musikari garaikidek, musikagile zarauztarraren kantuak berrasmatuz.

'Jon Braun', 'MacMikel', 'Ran Rover Ran'... kantu herrikoi bihurtu dira, belaunaldi askotako neska-mutilentzat. Baina badute sortzaile bat: Imanol Urbietta (Zarautz, 1934). 'Txoria nintzela', 'Kalera, kalera' (Josu Txapartegi 'Txapas'-ekin egina), 'Astoa ikusi nuen', 'Behin betiko' 'Uztaiak gora'... bada, askoren bizitzetako soinu-banda bihurtu dira. Horietatik hamahiru aukeratu dituzte gaur eguneko hainbat kantari eta musikaririk eta euren moldez eman dituzte Urbietaren kantu "herrikoiak", Zarauzko sortzaileari omenaldi bana egiteko. Hamahiru abesti horiei Andoni Egañak sortu duen bat gehiturik, hamalau omenaldi txikiko diskoa osatu dute, *Bakarrik eta Libreizenekoa*.

«Zenbat abesti egin dizkigun maitasunez ta ezti. Orain itzuli nahi genioke maitasuna abesti», hala dio Andoni Urbietaren idatzitako abestiak. Eñaut Elorrietak, berriz, *Bakarrik eta libre* abesti ezagunaren bertsioa egin du; *Mac Mikel*-ena Mursegok, eta *Gitarra bat* abestiarena, berriz, Anarrik. Pettik, Split 77k, Aiora Renteriak, Joseba Irazokik, Pariak Bai-ek, Su Ta



Garrek, Fermin Muguruzak, Matxurak, Lou Topetek, Audiencek, Makala Jazz Funk Bandek, eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ere hartu dute parte diskoan.

Proiektua egiteko ideia aspalditik zuten buruan hainbat zarauztarrek, Gari Berasaluze Zarauzko Udaleko Kultura zinegatoziak diskoaren aurkezpenean azaldu zuenez. 1990ean Mikel Laboaren omenez Euskal Herriko hainbat taldek grabatu zuten *Txerokee* diskoa dago Urbietaren omenezko honen sorburuan, hainbat

gazte disko hari esker, Laboa beste modu batera ikusten hasi zirela ikusi baitzuen Berasaluzek. Azaldu zuenez, Zarauzko hainbat lagunekin behin baino gehiagotan Urbietak ere halakorik merezi zuela pentsatu zuten. Azkenik, Zarauzko Udalak proiektua gauzatzea erabaki zuen, eta iaz hasi ziren diskoari forma ematen. «Nekez eskertu diezaiokegu Manolori egin duen guztia; Hau keinu txiki bat besterik ez da», adierazi du Zarauzko Udaleko Kultura zinegatoziak.



Mikel Kazalisk-*Anestesia* eta *Negu Gorriak* taldeetako kide izanak bere gain hartu zuen proiektua koordinatzearen eta diskoa ekoiztearen ardura. Lan hori "erronka handia" izan zela adierazi zuen diskoaren aurkezpenean. Abestien aukeraketa bereziki zaila izan baita, Urbietaren ondarea zabala dela-eta. "Ohore bat izan da lan hau egitea, Manolori diodan mirresmen eta errespetuagatik", azaldu zuen Kazalisk. «Disko batean ez da inolaz ere kabitzen egin nahiko genukeen guztia», gehitu zuen Berasaluzek.

Urbietaren abestiak «gure haurtzaroko soinu banda» izan direla adierazi du Kazalisk, eta horietako asko kantatu herriko bilakatu direla. Diskoan parte hartu duten musikari nahiz talde bakoitzak Urbietaren abestiak bereganatzen asmatu dute, eta ez soilik bereganatu, irauli ere egin dituzte, bakoitzak bere ukitua eman dio, ale bitxi eta ederrak sortuz.

Urbietak bera, «behin hasierako shocka pasata», emozioz beteta dago diskoarekin. Zenbat eta gehiago entzun orduan eta gehiago gustatu eizazio sortzaileari. «Irri bat oparitu nahi genion Manolori, eta negarrez aritu dela badakigu. Baina pozez betetako negarra izan da», kontatu zuen Berasaluzek.

Haurrentzako abestiak egin ditu Urbietak batik bat, baina haurrentzako ez direnak ere baditu diskoak. Horregatik guztiagatik, *Bakarrik eta libre* ez da haurrentzako disko bat soilik, baizik eta hiru belaunaldi bilduko dituen lana. Bai gaur eguneko umeentzat, baina baita Urbietaren abestiekin hazi eta hezi diren aurreko belaunaldientzat ere.



Imanol Urbietak

Diskoaren izena: Bakarrik eta libre


Parte hartzaileak:

- 'Bakarrik eta libre'. Eñaut Elorrieta.
- 'Uztaiak gora'. Petti.
- 'Txiki, txiki, txikia'. Split 77 eta Aiora Renteria.
- 'Astoa ikusi nuen'. J. Irazoki.
- 'Behin betiko'. Pariak bai.
- 'Haizearen herrira'. Su Ta Gar.
- 'Gitarra bat'. Anari.
- 'Kalera, kalera'. F. Muguruza.
- 'Mac Mikel'. Mursego.
- 'Kalaberak'. Matxura.
- 'Txoria nintzela'. Lou Topet.
- '18 Serore'. Audience.
- 'Jon Braun'. Makala Jazz Funk Band.
- 'Manolo'. Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Andoni Egaña.

Koordinatzailea: Mikel Kazalisk

Azalaren egilea: Jose Luis Zumeta

Argitaratzailea: Elkar.





Rober GUTIERREZ

Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkartearen zuzendaria

Aurreko batean, seme-alabak ikastolan utzi ondoren, bilera batera abiatu nintzen. Gasteizen izanik, kotxea garajejan utzita, tranbian joatea erabaki nuen. Bi geltoki aurrerago, ikasle-taldea bat sartu zen bagoian. Zalapartaka, oihuka, alarauka. Gaztelaraz garrasika, ondoan dagoen D ereduko institutuko ikasleak izanagatik. Tranbia berriz abiatu zen eta Legebiltzarreraino joan nintzen bidaide zaratsuekin.

Gaztelaraz aritu ziren ibilbide osoan. Nahi gabe ere, institutuko neska mutilek esaten zutena entzun behar izan nuen. Bitartean, lehiotik begira jarri nintzen eta hizkuntza paisaiari erreparatu nion. Une batez, Zaragozan edo Burgosen egon nintekeela pentsatu nuen.

Ohartu gabe, nire ikasle garaietara bueltatu nintzen. Seguru asko, duela hogeita hamar bat urte, geu izango bainkinen horiek bezain zalapartatsuak... Garai hartan, nire inguruan gaztelaraz hizkuntza bakarra eta ia ez nuen euskararen presentziarik hautematen. Hiru hamarkadetan asko aldatu gara denok. Kasu honetan, Gasteizko bilakaera soziolinguistikoa ere esanguratsua izan da. Hobera egin du, zalantzarik gabe, eremu guztietan, formaletan batez ere. Hala ere, gaur egun, gasteiztar askorentzat gaztelaraz segitzen du izaten hizkuntza eta errealitate bakarra

Euskara Gasteiz 'eleanitzean'

[gasteiztarren %93,1ek gaztelania erabiltzen du etxean; %1,9k euskara. Euskara zein gaztelania erabiltzen dituztenen kopurua gehitzen badiogu, %5,5era heltzen da].

Datu soziolinguistikoen arabera, Gasteizen, 5 eta 30 urte bitarteko biztanleen erdia baino gehiago elebiduna da dagoeneko. Horren ondorioz, adin horretako elebidun hartzailen eta erdaldun elebazarren ehunekoak gutxituz doaz. Are gehiago, 10 eta 14 urte bitarteko haur-gaztetxoaren artean hirutik bi euskaldunak dira. Adin horretan euskara batere ez dakitenak %10 inguru dira.

Azken inkesta soziolinguistikoa- ren arabera, gasteiztarren %15,5 elebidunak dira eta %18,7 elebidun hartzailak. Ah, eta kontuan izateko eta nabarmetzeko beste puntu bat da Gasteizen, Bilbon eta Iruñean bezala, gaztelania ez diren beste hizkuntzak euskara baino gehiago erabiltzen direla. Beste hizkuntza horiek, euskarari ez ezik, gaztelaniari ere eragin diote.

Gasteizko argazki hori ikusita, erraza da ondorioztatzea euskarak ez dituela betetzen gaztelaraz betetzen dituen funtzioak. Ume askok euskara ikastolan jasotzen dute, bikote euskaldunen ehunekoak gora egin badu ere. Jakina da irakaskuntzak berebiziko garrantzia duela hizkuntzaren transmisioan eta normalizazioan. Hezkuntza sistemaren bitartez, Wert gora-behera, pertsona euskaldun eleantizunak sortu eta hezi nahi dira. Baina eremu formal horretatik kanpo, erabilera jaitsi

egiten da... Ikasle hauen gaitasuna nahikoa ez izateagatik, hitzundentsitatea behar bestekoa ez izateagatik, gurasoon utzikeriagatik, garatzen ari diren politikak ez nahikoak direlako, gaztetxoentzat eredu direnek beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituztelako, etab.

Gasteizko gaztetxo gehienentzat gaztelaniaz bizitzea da eguneroko errealitatea, normala dena. Esfortzu apartekoa egin behar dute gaztelara ez den hizkuntza bat erabiltzeko, eta horretarako motibazio berezirik ez badute, ez dute erabiliko. Hezkuntza sistemak bakarrik ez du lortuko gizarte euskalduntzea, euskararen erabilera orokortzea. Hezkuntza sistemaren ekarpenaren ondorioz, gaztetxo horientzat guztientzat, euskara ez da arrotza, euskaraz aritzeko gaitasuna badute, eta ez da gutxi, baina hortik hizkuntza erabilera-ohiturak errotik aldatzeko urratsa egiteko funtsezkoa izango da alor eta estamentu guztiak inplikatzeko, bai eta hauen arteko koordinazioa, elkarlana eta osagarritasuna ere.

Tranbia Legebiltzarreko geltokian gelditu zen. Handik jaitsi ziren, zalapartaka, institutuko ikasleak Ignacio Aldecoa kultur etxean dagoen Badu Bada erakusketara bisita egiteko... Euskara mundu eleantizun.

Hemendik gutxira, gure seme-alabak ere tranbia horretara igoko dira bere lagunekin ikuskizun, hitzaldi edo erakusketa batean parte hartzera. Hau al da seme-alabentzat eraikitzen ari garen mundu eleantizun?

zientziaazoka

galdetu.ikertu.lortu

elhuyar da

2013-2014

Zientzia Azokan parte hartuz gero:

- Ikerketan eta proiektu teknologikoetan jardungo dira gazteak
- Tokian egiten den ikerketaren berri izango dute, gertu-gertutik
- Gazteen arteko esperientzia-trukeak biziko dituzte
- Ikertzaileen lana lehen eskutik ezagutu ahal izango dute
- Kanpoko beste esperientzia batzuetan ere parte hartzeko aukera izango dute

Ikertzaile profesionalen aholkuarekin!

Zientzia Azoka ekimena gazteek garaitutako proiektuen azoka da. Ikasturtean zehar, taldeko gazteek erabakitzen duten gaiaren inguruan arituko dira lanean: galdetzen, ikertzen, diseinatzen, eralditzen, eta esperientzia berriak bizitzen.

Bidean, ikertzaile profesionalen laguntza jasotzeko aukera izango dute, abenturak eta bizipenak konpartitzeko, eta gazteen lana bideratzen laguntzeko.



Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Kolaboratzaileak:



Eusko Ikasketa
Zientziak



Babesleak:



Laguntzaileak:

Donostiako Aqualuma, Gaztezulo,
Gipuzkoako parkeak, Karpin Abentura,
Skurfunk, Sobrón Aventura.



Kontaktua:

zientzia-azoka.elhuyar.org
zientzia-azoka@elhuyar.com
@ZTgela - 943 36 30 40

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Sentitu, pentsatu, ekin!

Liburua + haurrentzako DVDa



25

urte bete dira Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak aurrenekoz taula gainera igo zirenetik. Ibilbidea hasi zutenetik hamaika bizipen izan dituzte, beraiengan sekulako arrastoa utzi eta euren unibertso propioa sortuz; liburu hau dugu horren guztiaren lekuko. Amagoia Mujika kazetariak eginiko kronika honi esker, sudur gorriaren eraginpean bizi diren Aiora, Joxemari eta Mertxe ezagutuko ditugu zuzenean.

Horretaz gain, txikienen gozagarri izango diren pailazoen hogeita bost bideoklip jasotzen dituen DVDa eman dugu argitarara.



eskaerak
www.katxiporreta.com

Katxiporreta
KOOPERATIBA

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404